


EUSKARAREN ERABILERA ARAUTZEKO FORU DEKRETU BERRIA

Euskararendako ikatzza Gobernutik

Eguberriak gainean ditugu, eta Miguel Sanz presidentek aurre hartu nahi izan dio Olentzerori Foru Dekretu berri batekin. Presidentearen iritziz, "demokaziaren kontrakoa zen orain arte gertatzen ari zena, euskaraz ez zekitenak

baztertuak baitzeuden Foru Administrazioioko lanpostuetan sartzeko". Aldi berean, Foru Dekretu berriak Hezkuntza sisteman ere eragin handia izanen du, eta Gobernuak bere gain hartuko du testu liburuak

euskaratzeko lana. Erabaki honek, bistan denez, erreakzio ugari eragin ditu administrazioioko gehiengo sindikala, eskola-ikastola, alderdi politiko, Euskaltzaindia, eta orohar euskal kulturaren inguruko erakunde guzietan.



4 Erreportaia: Pilotalekuak

Kirola egiteko eta jendea biltzeko ditugun lekurik erabilienak dira pilotaplazak. Dena den, frontoia, gaur egun ezagutzen dugun bezala, azken 130 urteetan hedatu da. Aitzinetik plaza librean, pilotasoroetan, arkupeetan... aritzen ziren pilotan.

3 Elkarrizketa: Patxi Peña, Gartzaingo alkatea

Apezaren etxean jendea biltzeko eta kultur ekitaldiak antolatzeko zentrua egin nahi dute Gartzaingen: «Herriari bizi gehiago eman nahi diogu» dio Patxi Peña alkateak.

6 Gaurkotasuneko Gaia: Ikastetxe arteko harremanak Europan

Socrates programaren barnean Portugal, Suedia eta Poloniako ikasleen bisita izan dute Berako Labiaga ikastolan. Hango eta hemengo ikasleekin izan gara.

TTIPI TXARTELA: Orain txartela izateak abantaila gehiago ditu. Erosi zeurea eta erabili.



MUEBLES A METS

Sarrera BERAtik da
Alkaiagako industrialdean
Sastrin karrika, 3.2 - 3.4
31789 LESAKA
Tfnoa. 948 630 537
Fax. 948 631 443



1. urtemugako oferta
%40ko deskontuak
koltxoietan

Larunbat arratsaldetan irekia

Bera.

- Etxe bat berritzeko.
- 85 m²ko pisu bat salgai, bizitzen jartzeko prest.
- Apartamentua salgai, berri-berria.
- Eztegara pasealekuan 40 m²ko bajera salgai.

- Baserria salgai, bere terreno guzietan.
- Etxe elkar atxikia terrenoarekin salgai.
- 1.300 m²ko nabe-pabiloia salgai.

Lesaka.

- Etxe elkar-atxikiak, egiten hasiak direnak, **azkena**. 31 milioi.
- Nabe-pabiloia, 400 m²koa, salgai edo errentan.
- Bajera batzuk salgai..
- Etxea bere baratzarekin salgai..
- Baserri bat 50.000 m²ko lur eremuarekin salgai, lau etxebizitza egiteko modukoa.

Etxalar.

- Harrizko etxea salgai, terrenoarekin.
- Baserri moldatua salgai.
- Etxe berria salgai, lur-eremuarekin, bizitzen jartzeko prest.
- Borda bat lur-eremuarekin.

Arantza.

- Pisu salgai. 7,5 milioi.

Igantzi.

- Baserria salgai, lur-eremu zabalarekin edo gabe.

Sunbilla.

- 57 m²ko bajera salgai, erabat prestatua.
- Baserria salgai, bere lur-eremuarekin.

Doneztebe.

- Bajera salgai, 60 m², erabat prestatua, Elgorriaga aldera.
- Donamariako bidean, errepide ondoan, azken bajera, 100 m².
- 3.000 m²ko bi lur-eremu polit, eraikigarriak salgai.
- Bajera batzuk salgai herrian bertan.
- Bajera batzuk errentan emateko, ongi kokatuak.
- Frontoi zaharraren ondoan 200 m²ko bajera salgai.
- Aparan: 200 m²ko nabe-pabiloia errentan emateko, merke.
- Pisu pare bat salgai, herrian bertan. Sartzeko prest.



ADOS

Julian Izura Nuin

Telefonoak: 948 451 841 • 607.978 656 • e-mail: julizu@zaros.com

Parrokia 9, bajeran • **DONEZTEBE**

- Elizagibela karrikan eginen diren azken bi pisu berriak salgai. Neurri desberdinekoak. Egin ezazu erreserba.
- Udaltxe ondoan azken pisua, 170 m²koa.
- Pisu duplex berria salgai, sartzeko prest. Zoragarria.

Elgorriaga.

- Pisu bajera haundi batekin, arras rustikoa.
- Lur-eremu eraikigarria salgai, zelai-zelaia.

Ituren.

- Borda prestatua, ura, argia, ailegabidea.
- Lur-eremu salgai, landetan, eraikigarriak.

Zubietza.

- Etxe haundi bat salgai.
- Lur-eremu bat dohainik emanen da bajera baten truke.

Eratsun.

- Baserria salgai, lur-eremuarekin.

Lekunberri.

- Pisu batzuk, lur-eremu bat eta etxe batzuk salgai.

Donamaria.

- Lur-zati eraikigarriak, 300 m²tik goiti.
- Arras ongi dagoen txaleta salgai, lur-eremu batekin.
- Baserria salgai, lur-eremu batekin.
- Borda bat errentan emateko.

Igurin.

- Lur-eremu pare salgai, eraikigarriak. Merke.

Gatzelu.

- Lur-eremu eraikigarria salgai, 3.000 m²koa.

Urrotz.

- Baserri berritua lur-eremuarekin.

Beintza.

- Lur-eremuak. Herritik hurbil.
- Etxea salgai, baratze ttiki batekin.

SEGUROS LAGUN ARO
ASEGURUAK

Aprobexatu aukera zure desgrabazio fiskala egiteko.
Urte akitu baino lehen eros ezazu eta aurreztuko duzu.

Labaien.

- Lur-eremu eraikigarria, ongi kokatua.

Legasa.

- Lur-eremua salgai, eraikigarria.
- Pisu pare salgai, merke-merke. 7,5 milioitik goiti.
- Elkar-atxikiak eginen diren etxea salgai. Azkena.
- Pisu salgai Iturrialdea inguruan, bere bajerarekin.

Mugairi.

- Pisu salgai. • Lur-eremu eraikigarriak salgai.
- Egiten ari diren pisuak salgai.

Irurita.

- Lur-eremua salgai, etxe bat egiteko, 3.000 m², zelaia.
- 7.000 m²ko belagia salgai. • Etxe berria salgai.

Elizondo.

- Pisu polita Santiago karrikan. 120 m², hiru aldetara ematen du.
- Pisu salgai, ia berria, 90 m².

Erratzu.

- Etxe bat bizitzen jartzeko prest.
- Apartamentu duplex-a, erabat hornitua.

Otxondo.

- Baserria salgai, inguru zoragarrian.

Arizkun.

- Lur-eremu eraikigarria salgai.

Gartzain.

- Lur-eremu eraikigarria salgai.

Lekaroz.

- Harrizko etxea, herrian bertan salgai.

Baztan-Bidasoa.

- Eskiera handiagatik, pisuak, baserriak, etxe-

DATUAK.....

❖ Apaizaren etxea zena moldatu eta herriarentzat elkarte bat egiteko asmoa dute Gartzainen.

❖ Momentuan Artzapezpikutzak eta Baztango Udalaren arteko akordioa bide honetik doaie, eta Patxi Peñak erran digunez elkartearen moldaketa heldu den urteko aurrekontuetan sartzea espero dute.

❖ Bertze gauzen artean batzarreak, bazkariak, erakusketak eta ikastaroak egiteko erabiliko omen dute elkarte, «horrela herriari bizitasun gehiago emateko».

✎ **Patxi PEÑA** Gartzaingo alkatea

“Elkartea auzo guzien biltoki izatea nahi dugu”

NOIZ ETA NOLA SORTU ZEN GARTZAINEN ELKARTE BERRIA EGITEKO ASMOA?

Idea hau ez da berria. Betitik izan da herrian elkarte baten beharra. Orain dela urte batzuk, herritarren aha-leginaren ondorioz, elkarte egin nahi den toki hau bera berritzeko aurrekontua eskatu zen. Eraikuntza hau apaizaren etxea da. Orain arte beheko solairua bestatan ostatua jartzeko erabili izan da, batzarreak egiteko, inauterietan eta San Martin egunean bazkariak egiteko, etab... Aita Jose erretoreak ekitaldi hauekarako erabiltzen utzi izan du.

Lokala dagoen egoeran egonik, ordea, aurrekontua arras handia izan zen, eta auzo bakoitzak jarri behar zuen kuota ordaindu-ezina izan zen.

BERAZ, HASIERAKO GESTIOAK HUTSEAN GELDITU ZIREN. HALA ERE, ELKARTEA ESKURATZEKO MODUA IZANEN DUZUELA IDURI DU ORAIN, EZTA?

Bai. Orain Artzapezpikutzak Baztango Udalarik lokala denbora baterako ematen diola frogatzen duen dokumentua sinatzea falta da bakarrik. Hau nahiko aitzindurik dago gainera,

► “Elkartea bizilagunen artean moldatzea pentsatu genuen, baina lokala dagoen egoeran egonik aurrekontua arras handia izan zen eta ezin genuen herritarrek ordaindu.”



«Idea ez da berria, betidanik izan da herrian elkarte baten beharra».

bi aldeek akordio batera ailegatzeko borondatea erakutsi baitute. Bi aldeek sinatu ondotik, Balleko Udala arduratuko da gehienez ere bi urteko denboran moldaketa lanak burutzeaz.

HASIERAKO PROIEKTUAN 18 MILIOI PEZETA

TA AGERTZEN DIRA OBRA EGITEKO. NOLA LORTUKO DA DIRU HORI?

Hori da arazoaren alderdirik zailena, baina espero dugu Udalak erreparatzea modu horretako instalazioetan Gartzainen dugun ga-bezia, eta Nafarroako Gobernuarekin egin behar diren tratatu guzikiak egitea. Heldu den urteko aurrekontuetan elkartearen eraikuntza sartzea nahi dugu.

ZERTARAKO ERABILIKO LITZATEKE ELKARTE

TE BERRI HAU?

Batez ere elkarte auzo guzien bilgune izatea nahi dugu. Bilkurak egiteko tokia behar dugu, katekesia emateko, erakusketak, bazkariak, solasaldiak, liburutegia, ikastaroak, batzarreak, haurrentzako jokoak... eta abar.

Haur, gazte eta helduak egunero elkartu ahal izan diren toki horretan, eta gisa hortara, herriari bizitasun gehiago emanen zaio dudarik gabe.

Kirola egiteko eta jendea biltzeko gure lekurik egokienak

Norbaitek imajinatzen ahal du bere herria pilotalekurik gabe? Eskualdeko gehienak mende honetan eginak badira ere, edozein herriri zer bait faltako litzaioke pilotalekurik ez balu. Bertan kirola egitea da beraien funtzio nagusia, baina gure herrietan bazkari-afariak, bertso saioak, kontzertuak, herri kirol saioak eta bertze mila ekitaldi antolatzen aprobeztatu dira. Ez da harritzekoa, beraz, 1997-1999 hirurtekoan kirol arloan Nafarroan egin diren eraikuntza gehienak pilotalekuak izatea. Gure eskualdean dago horren adibiderik garbiena: frontoi berriak egiteaz gain (Legasakoa, adibidez), bertze aunitz berritu egin dira edo teilatua eman zaie (Eratsun, Igantzi, Donamaria..) azken urteetan, urte guzian erabiltzeko modua izan dezaten.

TESTUA: AITOR **AROTZENA**
ARGAZKIAK: **ARTXIBOA**



Lesakako pilotaplaza, oraindik estali gabe zegoenean. Azken urteetan herri aunitzatan egin den lana izan da pilotalekuei teilatua ematearena.

Nafarroa da Espainian biztanleko frontoi kopururik altuena duen komunitatea, Nafarroako Kirol eta Gaztediaren Institutuak argitaratutako aldirikari batean ageri denez. Iparraldeko kopurua ere gisakoa izanen da. Ezker pareta duten pilotaplazen ordez, plaza libroak –aitzineko pareta dutenak bakarrik– eta trinkeak arruntagoak dira, baina ez da errea izanen pilotalekurik gabeko herririk aurkitzea.

Baina pilotalekuak, frontis eta ezkerparetarekin, gaur egun ezagutzen ditugun bezala, ez



Inaxio Errandonea, Luis Mari Retegi, Antton Maiz eta Julian Retegi, Maiz II.ari Arantzán egindako omenaldian.

dira aspaldiko kontua. Tiburtzio Arraztoa, Laxoa Elkarteko kideak aipatu digunez, «ezkerpareta–orduana ble bezala eza-

gutzen zena– 1870. urteaz geroztik sortutakoa da. Beraz, erraten ahal da gaur hedatuena dauden pilota modalitateak,

orduz geroztik sortutakoak di-rela: zesta-punta, joko-garbi, pala... Erremontea, adibidez, XX. mendekoa da, 1904. urtean sortu baitzen».

Ordura arte, pilotan aitzinez aitzin jokatzeko zen, aurkariak –bakarka, binaka nahiz launaka– aurrez aurre zirela. Inguru honetako toponimian maiz xamar agertzen omen da Pilotasoro eta gisako izenak, beraz, belagietan ere jokatzeko bote luzean (laxoa bezala, baina eskuz, guanterik gabeko jokatzeko modalitatea).

Paxakan, berriz, ez zuten plazetan jokatzeko, herriko etxe-etako eta elizetako arkupe edo gorapeetan eta trinketetan baizik.

Pilotari eta etxe jabeen arteko eztabaida

Baina gaur egunekoak bezala ez izanik ere, pilota plazak 1870. urtea baino lehenagokoak dira. Horren erakusgarri da Baztango Balleko Etxean agertu zen XVIII. mendeko agiria. 1785. urtean, eztabaida gogorra sortu zen Oronozko plazan jokatzeko zuten pilotarien eta Bortenea etxeko nagusien artean. Nonbait, pilotak noiznahi joaten ziren etxe hortako teilatu eta baratzerara eta jokua debekatzea nahi zuten Borteneakoek. Oronozko herria pilotarien alde azaldu zen eta Balleko Udalak emandako epaia herriaren eta pilotarien aldekoa izan zen: «Baztango herri guzietan dute pilota plaza eta jokua Balle osoko ohitura denez», jokalariei arrazoia eman zieten.

Plaza librearen galtzeko zorian

Pilota plaza ireki hauek, galtzen joan dira herri gehiengotik. Hori dela eta, bere arrenkura azaldu du Tiburtzio Arraztoak: «Egia da Nafarroan frontoi aunitz daudela, berriak egiten eta zaharrak moldatzen ari direla azken aldi honetan, baina pilota plaza irekiak galtzen ari dira. Azken adibidea, Donamariako plaza izan da, teilatua eman eta itxi egin baitzuten. Hor ezin izanen da gehiago laxoan jokatu. Herriko Etxeek, pilotazaleek eta herriko jendeak kontzientzia hartu behar dute arazo honen aitzinean. Frontoi berriak bai, baina pilota plaza berriak ez da sekulan egin».

GOIZUETA

Herriko jauntxoaren arteko gorabeheren ondorioz bi pilotalekuak batera egin zituzten

Pilotarekin lotua dagoen herriaren bat baldin bada hori Goizuetan da. Gaur egun hiru pilotari profesional ditu –Olaizola anaiak eta Salaberria– eta berriki arte berte bi ere izan ditu –Loiarate eta Lujanbio–. Gainera, afizionatuetan sei aldiz irabazi du Goizuetan Nafarroako Herriarteko txapelketa. Juan txo Apezetxea, eskuz banaka Munduko txapelketa izan da lau aldiz. Eta atzetik heldu diren pilotariak garai berriak lortzen ari dira han-hemenka. Mila biztanlerai ailegatzen ez den herri baterako handia da hori. Zergatik galdezkerakoan goizuetarrak bat datoz: «hemen frontoia besterik ez dugu eta han biltzen dira haur guziki



Pilotari handiak sortu dira Goizuetako pilota plazatik. Nafarroako 1991ko Herriarteko txapelketa irabazi ondotik, argazkian ageri dira bertzeak bertze Olaizola anaiak eta Iñaki Lujanbio.

jostatzera». Izan ere, hiru pilota plaza dituzte Goizuetan. Horietako bat, eskolako, berri xamarra da. Beste biak, Lubineko eta Irisarrikoa, 1910. hamarkadan eraikiak dira, kasik aldi berean, eta historia berezi xamarra dute, Jose Javier Etxe-

berriak aipatu digunez. «Ceferino Loiaratek, garai hartan herriko jauntxoetako batek Lubineko atariko alorra erosi zien Altsuatarrei, eremu hortan pilota plaza egiteko. Garai hartan Irisarriko Esteban Arratibel zen alkate eta honek, berriz, be-

raien etxeko baratzean egin nahi zuen pilota plaza. Izugarrizko espa sortu zen eta, azkenean, bi pilota plazak egin ziren aldi berean. Ordura arte, ez zen ezker partetik Goizuetan eta Urrutineako pareta erabiltzen zen frontis bezala».

Bertze pilotalekuak



Trinketea

Batez ere Iparraldean mantentzen den pilota lekua da (Elizondoko Antxitonea ere berreskuratzen saiatzen ari dira). Ezker partetik baino xoko eta koxka gehiago ditu eta jokatzeko biziagoa da. Esku huska nahiz pala, guante eta xistera ezberdinak erabiltzen ahal dira. Erraten dutenez, garai bateko elizatarien itxura gordetzen du trinketeak, leku horietan jokatzen baitzen garai batean pilotan.



Plaza librea

Pilota aitzinez aitzin jokatzeko zenean, ez zen frontis eta ezker partetik beharrik. Honela, pilotariak –banaka, binaka nahiz launaka– bata bertzearen aitzinean jartzen ziren, herriko plazan nahiz pilota soroetan. Izan ere, pilota –tenisa bezalaxe– Erdi Aroan Frantzia jokatzeko zuten. Iparraldera eta Europan tenisa hedatu zen bitartean Hegoaldean pilota gelditu zen.



Arkupeak

Frontoiak egin aitzineko pilota plaza nagusiak izan dira Herriko Etxe eta elizetako arkupe edo gorapeak. Argazkian, Elizondoko Balleko Etxeko gorapea ageri da, eskuz jokatutako paxaka partida batean. Hain zuzen, paxaka eskualde osoan jokatzeko omen zen mende hasieran. Aurten, bigarren urtez, guantearekin jokatzen den paxaka txapelketa antolatu du Laxoa Elkarteak.

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85

FRANKEO ITUNDUA: 34/79

TIRADA: 7.100 ALE

Helbidea:

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA

Herriko Etxeko Plaza, 1

E-31780 BERA (Nafarroa)

Tfnoa: (+34) 948 63 11 88

Faxa: (+34) 948 63 12 91

Internet:

<http://www.topagunea.com/ttipi-ttapa>

e-mail:

ttipi-ttapa@topagunea.com

Jabea: TTIPI-TTAPA FUNDAZIOA.

Presidentea: Pello Apezetxea.

Kudeatzailea: Joxemanuel Iri-
goien. **Zuzendaria:** Aitor Arotze-
na. **Publizitatea:** Kulturkari, S.L.

Administrazioa: Amaia Goia.

Erredakzioa: Aitor Arotzena,

Asier Gogortza. **Berriemaileak:**

Joseba Azpiroz, Esteban Aroze-
na, Juana Mari Saizar, Iban Isasi,

Patxi Iriarte, Patxi Otxandorena,

Jaione Otxandorena, Alba Fer-
nandez, Lorena Galarregi, Pablo

Mendiburu, Franck Dolosor,

Margari Etxenike, Koro Irazoki,

Ana Mari Etxeberri, Frederick

Berruet, Elixabet Iturria, Garbiñe

Maiz, Oskar Txoperena, Joseba

Olagarai, Nerea Mitxeltoarena,

Aitor Arozena, Asier Gogortza.

Kolaboratzaileak: EHNE Nafa-
rroa, Mikel Bezunartea, Belarra...

Inprimategia: Gertu. **Erakunde**

Laguntzaileak: Bera, Leitza,

Goizueta, Arano, Areso, Baztan,

Urdazubi eta Sarako udalak,

Zugarramurdiko Akelarre elkar-
tea, Bortzirietako Euskara Man-
komunitatea, Malerrekako Zer-
bitzu Mankomunitatea, Zugarra-
murdiko Akelarre Elkarte...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria2.200 Pta.

Ipar Euskal Herria160 Libera

Europa4.000 Pta.

Amerika16.000 Pta.



**Aldizkari honek Nafarroako
Gobernuaren laguntza jaso du**

GAURKOTASUNeko GAIA

Europako ikasleak bisitan Labiaga ikastolara

**Hemen nagoen bitartean
nere herrialdeko ordezkari
lanak betetzen ditut**



JOANNA
Polonia

Lehenagotik ezagu-
tzen ditut euskaldun-
nak, beraien kultu-
ra, lekuak. Hagitzes-
perientzia ederra da berriz ere hon-
at bueltatzea. Uste dut erlazio em-
ozional gisako bat dela proiektuare-
kin, jendearekin... beharbada ber-
tze herrialde eta jendearen kulturak
ezagutzea gustoko dudalako. Aldi-
berean, hemen nagoen bitartean ne-
re herrialdeko ordezkari lanak be-
tetzera espero dut, Polonia ez baita
sobera ezaguna jendearen artean.

**Hemen arratsetan
ateratzeko ohitura handia
dago eta han ez**



PATRICIA
Suedia

Zaila da bi hitzetan
hemengo jendea no-
lako den definitzea,
jende gutzia ezber-
dina baita. Euskal Herria ere
Suediatik hagitz ezberdina da, bai
janari aldetikan, hizkuntza aldeti-
kan, baita kultura aldetik ere. Jendea
bera ere hagitz ezberdina da, baita
ohiturak ere. Hemen arratsetan ate-
ratzeko ohitura handia dago, par-
kera ateratzen gara eta han, aldiz,
ez gara horrenbertze ateratzen, batez
ere garai honetan.

**Lagunak egin, ingelesa
praktikatu, kultura ezagutu:
esperientzi ona da**



KARINA
Portugal

Portugaldik kanpo
ateratzen garen le-
hendabiziko aldia
da. Esperientzia en-
treenigarria da, ona nik uste, eta as-
pektu ezberdinetan gainera. Ingelesa
praktikatzea, lagunak egi-
tea, kultura ezberdinak ezagutzea...
uste dut esperientzia ona dela. Euskal
Herria polita da, bertako lagunak be-
zala, Lesakakoak eta Berakoak... gus-
tatzen zait Espainiako herri hau.

**Gure kultura eta ohiturak
ezagutarazteko ekitaldiak
prestatu diegu**



Olaia OLIVEIRA
Labiaga. Bera.

Atzerritik lagun ba-
tzuk etorri zaizkigu
eta guretzat espe-
rientzia berria da.
Esperientzia polita da ingelesa ikas-
teko eta lagunak egiteko. Etxean ere
izan ditugu eta etxeko bat gehiago
beza tratatzen saiatu gara. Portugalen
egonak ginen eta elkar
ezagutzen genuen. Gure kultura eta
dantzak ezagutzeko ekitaldiak an-
tolatu ditugu: Bortzirietako ferietar-
ra joan, Hondarribiara ateraldia, tti-
pi-ttapa telebista ikusi...

**Gauza desberdin aunitz
egin ditugu egunero eta
astea laburra egin zaigu**



MATIAS
Suedia

Aunitz ikasten ari
gara, ongi pasatzen
dugu, lagun berri
aunitz egin ditugu...
gauza pila bat egin dugu. Momentu
honetan ez zait deus berexirik go-
goratzen, baina bai, gauza desber-
din pila bat egin ditugu egunero,
egun bakoitza esperientzi berri bat
da eta astea hagitz laburra egin zai-
gu. Herri bakoitzeko leku politenak
ezagutu ditugu, ttipi-ttapa telebista
bisitatu...

**Internet-en bidez mezuak
bidaliz egin genuen
lehenbiziko harremana**



Irantzu PASTOR
Labiaga. Lesaka.

Internet-ez hainber-
tze solasten den ga-
rai honetan, noski,
mezuak bidaliz egin
genuen lehen harremana. Gainera,
Suediara telefonoz deitzea, hagitz
garesti ateriko litzateke bertzenaz.
Lehenbiziko e-mailetan nolakoak gi-
nen esplikatzeko genuen: adina, zer
gustatzen zaigun. Honela, heme-
ngo bakoitzak hango batekin harre-
mana estutu eta solasten hasi ginen.
Orain gure etxetan kontu ditugu,
hobekiago ezagutzeko.

ttipi-ttapa
fundazioak
Europako
Batzordearen
dirulaguntza
jaso du

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

- Asteleheneetik asteazkenera 9-13etara eta 15-19etara
- Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara
- Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 948 637050

BURLATA:

ARTEKARI, S.L., © 948133328 • 133346. Faxa: 948133713
Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi-langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitopenak
- Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- Bideragarritasun planak

IRAKURLEAK MINTZO

Hurrengo arte, Luixito:

Hantxe ikusi nizun, azken hatsa eman ziñun tokin, gaba eze hartan. Zu zinela jakin nuenean, galdetzen nun: Ordua ailegatu al zitzaizun? Mundu hontan, zure lana akittu al zen? Hainbertze kalamitatetik bizirik irauteko ziñun sen horrek, askil, erran al zizun? Orain nork oroittuaraziko digu zein mixerableak garen? Zure kontura hamaikak egiten bai zuten irri! Biotz gogorrak!! Ez al ziren konturatzen guk hainbat edo gehigo sentitzen zinu? Mixerableak gara! Eta zuk hori ongi ikusten zenuen eta bazinakin. Barkatu, ez nitzen izan zure azken agurrari. Bino, jakinzazu nere errespētu guzia izan zinu? Hemen izan zinen bittartin. Hartu ezazu atsedena, momentu onak pasatuko bazenituen ere, beharbada, mundu ustel hontan, nekatu xamar ere izanen zinen eta.. Hurrengo arte Luixito!

JOSEBA URROTZ
URROTZ

**Ikusi nahi ez duenari**

Azken boladan indar errespiboen presentzia bel durgarri handitu da gure zonaldean. Errepidean kontrol bat aurkitzea ohiko bihurtu zaigu, bai eta gure herrietako kaleetan bueltaka ikustea ere. Hau bere hortan onartezina bada ere, duela hilabete bat pasatutakoa (azaroak 24) ezin dugu aipatu gabe utzi. Egun honetan, ortzila arratsaldean, Guardia Zibilek, gazte bat mehatxatu, kuar-

teratu eta jipoitu zuten, soilik, AEKren kriminalizazioa salatzen zuen pankarta bat jartzen ari zelako. Kontutan hartuz Garzonek deiturikoen artean herritar bat zegoela, guztiz zilegia iruditzen zaigu Lesaka herriak, salaketa zentzugabe hauen berri izatea. Guarzia Zibila herrira bueltatu zen, jendea kalean ideifikarazi eta katxeatuz. Hau aski ez balitz, Guardia Zibilek gau hortan bertan, herriko gazte kuadrila bat jarraitu zuten, haietako bat pistolarekin mehatxatuz lurrean etzazaraziz. Errepresio gogor honen aintzinean, ezin gara ixilik gelditu; herritar eta arduradunei dei bat egiten diegu, berri ere horrelako gertakariak errepika ez daitezen, lehen bait lehen, beharrezko pausuak eman dituzten. Aski da!! Errepresioa ez da bidea!

AMNISTIAREN ALDEKO
BATZORDEAK

**AEK aitzinet, eskuara aitzinet:**

Honetakoan AEK-ri tokatu zaio. Garzón epailea bere eskema «famatua» osatzen ari da. Erran nahi baita, Euskal Herriko herri mugimenduak kriminalizatzen eta ETArekiko lotura frogatu nahian. Salaketa larriak agertzen zaizkigu autoan: ETA-ren partaide eta kolaboratzaile izatea, Gizarte Asegurantzari iruzur egitea eta baita iruzur fiskala ere. AEK kriminalizatzeko argudio «kuriosoak» aipatzen dituzte; berteak bertze, finantziatzeko txoznak, boletoak, Korrika, e.a. erabiltzen ditugula, horrekin «harremana» frogatu nahian. Bertzalde, iruzurrari dago-kionez, hemen denok daki-

gu AEK boluntarioz osatutako elkartearen dela. Eusko Jaurlaritzarekin akordioa sinatu arte AEK-kez zuen lan-gilerik; geroztik hasi zen irakasleen egoera laborala regularizatzen.

Hor dugu ere, iruzur fiskala egitearen akusazioa. Jakina denean, irakaskuntza aritzen direnek ez dutela zertan ordaindu BEZ-a edo halako zergarik.

Auto honetan 19 pertsonari inputazio desberdinak egiten zaizkie eta guziak deitu dituzte deklaratzera Madrilera. Lehendabizikoan artean dugu Lesakakoa den Eduardo Konde, aintzina Nafarroako arduradun izan zena. Hauek dagoeneko deklaratu dute eta momentuz, ez dute beharrezko neurriak hartu hauen kontra. Hondarreko deklarazioak hilabete honen 22an burutuko dira eta ordura arte ez dugu jakinen, seguraski, zergatutako den. Dena den, akusazioak larriak dira eta momentu latza bizi duguna, konpromezuak hartzeko momentua. Guk gure aldetik, eguneroko jardueran segituko dugu, hots, klaseak ematen eta euskararen aldeko lanetan. Eta hori da denei eskatzen dieguna ere: euskararen aldeko konpromezua berrestea, euskara ikastea, erabiltzea, euskalgietan matrikulatzea eta eginen ditugun deialdietan parte hartzea.

BAZTANGO AEK

**Eguberriak ailegatu dira:**

Dagoeneko Eguberriak hurbil daude. Urtero bezala, Bertizko Merkatal Elkarteko kideak, zure beharrak beteitzeko prest dira. Mota guztietako produktuak eskaintzen dizute zonaldeko herri guztietan. Gainera, zonal-

dean erosten duzulako sari-tu nahi zaituzte, eta horretarako, abenduaren 5etik urtarrilaren 20a arte, Bertizko denda batean erosten duzun bakoitzean, boleto batzuk emango dizkizute, zozketa interesgarri batean sartu zaituzten. Urtarrilaren 22an, 50.000 pezetako erosketak egiteko balioko duten hiru sari zozketatuko dira. Oso opari ona da Eguberrietan gastu gehiago izaten bait dira. Irabazleek, hilabete bateko epea izango dute 50.000 pezeta hauek Bertizko kide diren dendetan gastatzeko. Ez galdu Bertizko Partzuegoan dauden 80 merkatariak eskeintzen dizuten aukera. Lagundu itzazu dendariak, erosten duzunean zure boletoak eskatuz. Behar dituzun gauza guztiak, Bertizko Merkatal Elkartek ematen dizuzte: Urrunago Joan Gabe.

BERTIZKO
PARTZUEGO TURISTIKOAK

**Aresoko etxebizitzaren eraikuntza:**

Zenbait xehetasun
Ttipi-Ttiparen 291. aleko kronikan agertutako informazioa dela-eta, Aresoko Euskal Herriarrok udal taldeak zera adierazi nahi du:

1.- Arau Subsidiarioen arabera, U.A. 11 ingurua, urbanizatzeko ingurua da. Horretarako, lurzatiak ordenu behar dira, bideak optimizatu, saneamendu-sarea bertara eramane, ura, argindarra, ... eta ondoren etxebizitzak eraiki. Hori guztia Udalaren eskumena edo konpetentzia da eta hiru urte inguru darama geldirik.
2.- Etxebizitza bat eraikitzen ari da (eta ez etxebizitzak). Etxebizitza hau egiten ari den familia, lurzati erosteko nahikoa diru gastatu ondoren,

dagoeneko nekatu eta gogaitu da Udalak legea bete dezan itxoiteaz, alegia, Udalak ingurua urbanizatzeko itxoiteaz. (espero dugu zailtasunik ez izatea uraren eta saneamenduaren hodiak, ... jartzeko garaian, eta lehendik zeuden sareetara egokitzeko aukera izanen dutela)

3.- 10. zenbakia duen lurzatiari dagokionez, bertan babes ofizialeko 6 etxebizitza eraikitzeko Herritarren Elkartearen sorrera geldituta dauka Udalak, duela 2 urte baino gehiago.

4.- Etxebizitzaren gaiari dagokionez erabat geldik dago dena. Aresoarrak udal taldeak egoera honetara ekarri gaitu, lur gehien jabearen interes espekulatiboak babestu dituelako, urbanizazioa egiteak denontzat ekarriko lukeen onuraren aurretik.

5.- Etxebizitzaren gaia da Udalak egin behar duen gizarlanaren zati garrantzitsuenetakoa. Adorez gidatu beharreko lana da, bere alde eginez, baldintza egokiak sortuz. Herritarrek, eta batez ere gazteek, ikusi behar dute nahi izanez gero epe ertain batean jaio diren herritar bizi daitezkeela.

6.- Azaldutakoa dela-eta, Aresoko EH udal taldeak hau exigitzen du: U.A. 11 urbanizazioa berehala egitea, eta babes ofizialeko etxebizitzak egiteko herritarren elkarteak sortzea.

ARESO, 2000KO ABENDUAREN 12A
ARESOKO EH UDAL TALDEA

Oharra: lurzatiaren azalera 600 m²koa da. Hauetako 360 m²tan eraiki daiteke, beheko solairua gehi bi. Metro karratuko urbanizazioaren kostua gutxi gora-behera 4.000 ptakoa da (96 urteko prezioa, seguraski gaur egun 4.000 baino gehiago izanen da).





Diario de Noticias 00ko abenduak 6

«Eskozian, kilt-a (gizonezkoen gona) herritaren eguneroko bizimoduaren zati bat da, Leitzan pilotarekin gertatzen den bezalaxe».

«Ni Kennedytarren familiakoa naiz, eta nere kilt-aren hiru koloreen bidez nire arbasoen historia azaltzen da: gorria erregearekiko lotura da; granatea irabazitako gudak eta horia, nire familiako emakume bat beste klan bateko buruzagiarekin ezkondu zela».

Kevin TWBB

Ingeles irakaslea Leitzan

Diario de Noticias 00-12-06

«Ez nago batere pozik, kanporatu egin nautelako eta etxera noalako, baina denok ikusi duzue lau terdian edozeini irabazten ahal diodala. Hiru urtez jokatu gabe egon ondotik, atera naiz eta kunplitu egin dut. Hilabete pare bat jokatu gabe gaudenean kostatzen egingen zaigu hasieran, beraz, niri, horrenbeste denboraren ondotik, zer esanik ez».

Julian RETEGI

Eratsungo pilotaria

Diario de Noticias 00-12-12

◆ Zer da zure lanean gehien gustatzen zaizuna?

◆ Nerekin mozkortzea gustatzen zaionarentzat lan egitea.

◆ Eta guttien?

◆ Giro txarrean lan egitea.

◆ Egia da ostatuko zerbitzari onak psikologo onak ere izaten direla?

◆ Egia erran ni ez naiz ostatuko zerbitzari ona.

◆ Zer egiten duzu jendea ostatutik bidali nahi duzunean?

◆ Vicente Fernandez-en mexikarrak jarri eta "ez al duzue etxerik" galdetu.

◆ Ostatukoaz aparte, ze lanean ariko zinateke gustora?

◆ Tenislari profesionala.

◆ Zein da zure amets erotikoena?

◆ Zurekin amets egiten dudanean, "chato".

◆ Zein da lotsaren kontrako sekretua?

◆ Horixe jakin nahi nuke nik.

◆ Egia da ttikitan kalimotxoaren marmitan erori zinela?

◆ Egia erran zisterna bat zen.

◆ Zergatik eman duzu izena "Gran Hermano" lehiaketan? Fama-gosea, diru-gosea, gosea...

◆ Jakituri gose hutsa. Ja, ja, ja!

◆ Zer da "Gran Hermano"ko etxean sartzerakoan egiten duzun lehendabiziko gauza?

◆ Denentzat baratzeri zopa eder bat prestatu.

◆ Eta ateratzerakoan?

◆ Ostiaka atera beharko naute.



TXOPE

Tabernaria

BERA

Lanchas

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak



Zalain Auzoa
© 948631106
BERA

Boda eta banketeak ematen dira



SALAZONES UDANA, S. L.

*Importaziozko lehen kalitateko bakailu gaztuta
Bakailu gezatua eta kongelatua, erabiltzeko prest*

Alkaiaga ind. • Banarta, 8 - 23. pabilioia • LESAKA • Tel. 948 631536 • Fax: 948 631550

PINTURAS LEGUIA S.L.

Rafa: 600 819 640
Jose: 666 235 466

Eztegara 26, 2.C - BERA

Iriarte-Echandi, s.i.

- Aholkularitza
- Artekaritza
- Aseguruak

Kanttonberri | BERA • Tel eta Faxes: 948 631169

KULTURA

Bortzirietako Bertso eskolak taldekako 3. lehiaketa antolatu du

Bortz hirukotek eman dute izena urtarrilean eginen den txapelketa honetarako

TTIPI-TTAPA

Bortzirietako Bertso Eskolaren hamargarren urteurrenoko ekitaldien artean taldekako lehiaketa antolatu dute hirugarren urtez.

Aurtengoan bortz hirukote osatu dira. Kanporaketak urtarri-la haseran eginen dira Lesaka eta Beran eta finala urtarrilaren 20an izanen da Lesakako Arrano elkartearen.

Lehenbiziko kanporaketa urtarrilaren 5ean, ortzirala, eginen da Lesakako Berri ostatuan, arratsaldeko 7etatik aitzinera. Bertan izanen dira A taldea (Iñigo Olaetxea, Estitxu Fernandez eta Erika Lagoma) eta B taldea (Bittor Elizagoien, «Etxabe» eta Oskar Goñi).

Biharamonean, urtarrilak 6, ordu berean ariko dira Lesakako Kattu ostatuan C tal-



Hamargarren urteurrenoko ekitaldien barnean antolatu du lehiaketa Bertso Eskolak.

Artxibokoa

dea (Manolo Arozena, Juan Mari Lopez eta Alaitz Rekondo) eta D taldea (Estitxu Arozena, Ekhine Etxepetelku eta Julen Zelaieta).

Urtarrilaren 12an, ortziralarakin, Berako Gure Txokoa elkartearen eginen da azken kanporaketa, arratsaldeko 7etatik aitzinera. E taldea (Xabier Silveira, Xabier Terreros eta Beñat Taberna), aintzineko bi kanporaketetan garaile izan di-

renen arteko puntuaziorik baxuena duen taldearen aurka ariko da. Saio honetako irabazleak eta lehen bi saioetan puntuaziorik altuena lortu duen taldeak finala jokatuko dute Arrano elkartearen urtarrilaren 20an.

Berrikuntza gisa, kartzeleko gaian taldekide guzietatik kantatu beharko diote hitz bati, batek alde, bertzeak kontra eta bertzeak erdibideko bertsoa.

BERTIZ

Herrian erosteko kanpaina hasi dute Bertizko dendariak

50.000 pezetako hiru erosketa txartel zozketatuko dituzte

TTIPI-TTAPA

Eguberri garaia gainean dela eta, bertan erosteko kanpaina berri bati ekin diote Bertizko Partzuergo Turistikoko merkataria. «Urrunago joan gabe» lelopean, zera adierazi nahi dute Bertizko Merkatariek: «*zernahi produktu eskaintzen dizute zonaldeko herri guztietan, behar dituzun gauza guztiak Bertizko Merkatal Elkarteak ematen dizu*».

Erosketak herriko dendetan egiten dituztenak saritu nahi dituzte. Horretarako, abenduaren 5etik urtarrilaren 20a arte, Bertizko denda batean erosten den bakoitzean, boleto batzuk jasoko ditu bezeroak, zozketa interesgarri baten sartzeko baliagarriak izanen diren txartelak, hain zu-

zen. Urtarrilaren 22an, 50.000 pezetako erosketak egiteko balioa duten hiru sari zozketatuko dira. Irabazleek, hilabete bateko epea izanen dute 50.000 pezeta hauek Bertizko kide diren dendetan gastatzeko.

Bertizko Partzuergoan dauden 80 merkatarien aukera hau kontutan hartzekoa da. Elkartetik adierazi dutenez, dendariak laguntzeko modu polita da, «erosten duzunean zu-



Produktu guztiak dituzte gure dendetan.

J. RAMOS
Zolak akutxilatuta eta barnizatzen dittut
© 948631342 BERA • © 94863172 LESAKA

SAROB
okindegia 
SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

Alberto RETEGI
abokatua
Altzate 17
BERA
© 948 630 763

zapatadenda.
kalotxa.
osagarriak.
konponketak.
Legia 36 Bera 31780 Nafarroa 948 631516

bortzIRUDI
BERA
FOTOKUPIAK, ENKUNBERNAGAZAK, PAPERITUGIA, DISKINU GUAFIRGA, INBUNTAN LANAK, SERRAIA, FAXA, E-MAILA, ARGAZI MUNTALAK, IRIBITUTIAK, PUBLIZITATEA
Eztegara 26 beheba Tel.- Faxa: 948 63 15 21

Gorka Ibargoienen diseinuak irabazi du barandaren lehiaketa

Aurkeztu diren 31 proposamenekin erakusketa bat egingen da

ASIER GOGORTZA

Ikusmin handia piztu du barandilla berriaren diseinua aukeratzeko lehiaketak. Denetara 31 lan aurkeztu dira, aunitz Berako jendearenak, baina baita Gipuzkoatik, Nafarroako bertze herrietatik, eta harriarria izan arren Hego Ameriketatik ere ailegatu da proposamen bat. Joan den asteazkenean epaimahaia azken erabakia emateko bildu zen Herriko Etxean, eta lan guzieren kalitatea azpimarratu badute ere, Gorka Ibargoienen "Stylos" izeneko proiektua aukeratu zuten.

"STYLOS", SAN MIGUEL ZUBIA ETA IZOKIAK

Bigarren saria Mikel Telletxea 25 urteko beratarrentzat izandu da, San Miguel zubian oinarritutako diseinuarengatik. Hirugarren, berriz, Ruben Sanchez irundarra izan da, Bidasoako izokietan oinarritutako lanarekin. Bi hauek 30.000 eta 20.000 ptako sariak jasoko dituzte.

Gorka Ibargoienen diseinuak Berarekin muga egiten duten zazpi herriak irudikatzen ditu marra bihurtuen bidez. Barandillaren zuta-beetan, berriz, Berako



Hau izanen da luze gabe Berako hainbat tokitan ikusi ahal izanen den baranda. Marra bihur horiek Berako herriarekin muga egiten duten zazpi herriak irudikatzen dituzte.

armarria agertuko da erliebean. Barandaz gain, kale peatonalak eta kortexentzako errepideak bereizteko zutabe tiki batzuk ere aurkeztu ditu diseinu berdinean oi-

narrituta.

Lehiaketa parte hartu duten diseinu guziaz jendarean jarriko dira Kultur Etxean. Erakusketa hau Eguberrien ondoko as-



tean irekiko da, eta erakusketa irekiko den egunean bertan banatuko dira sariak.

Kaxerna Aisialdi Taldeak "Kaxerna Eguna" antolatu du eguberrietarako

Urtearen azkenurreko egunean, abenduaren 30ean, Berako haur eta gaztetxoek egun guziko besta izanen dute Eztegara pilotalekuan. Goizeko 11etatik aitzinera eskulan desberdinak egiteko aukera izanen dute: musika instrumentuak egin, txontxongiloak... eta ondotik herri kiroletan lehiatuko dira bazkaltzeko ordua ailegatu arte. Denek elkarrekin bazkaldu eta gero joko gehiago izanen dituzte Kaxernako begiraleen eskutik.

Arratsaldeko 5,30etan, berendu ondotik, Marsel magoak bere abildadea erakutsiko du haur guzieren aitzinean.

flash

Traktoreen azterketa teknikoa

Iaz batek bakarrik egin bazuen ere, aurtentzako traktore mordoak bat bildu da suhiltzaileen parkean IAT azterketa delako pasatzeko asmoz. Denetara 18 traktore agertu ziren.

Gabon kopa

Urtero bezala, eguberrietako areto-futbol txapelketa jokatzen ari dira egunotan herriko kuadrilak. Abenduaren 30a bitarte jokatuko dira partiduak Toki Ona kiroldegian, arratsaldeko 6,30etatik aitzinera.

Zubieta, Nafarroako txapelkun

Iban Zubieta pilotari gazteak lau terdiko Nafarroako txapelketa irabazi du Lizarran jokatutako finalean. Azken partidu honetan 18-11 irabazi zion Larraungo Azpirozi, nahiz eta hasieran 8-11 galten hasi.

Olentzero

Abenduaren 24an arratsaldeko 5,30ak aldera ailegatuko da Olentzero Berarat. Arratsalde horretan 4etatik aitzinera haurrak auzoz-uzo ibiliko dira eguberrietako kantuak kantari, eta 5,30ak aldera ikazkina eta bere astoiari harrera egitera joanen dira Berako plazara.

Javier Manterola
TEKNIKO
INSTALATZAILEA
iturgintza • gasa • kalefakzioa
Tfnoa: 948 630 031 • BERA

IRIARRE - GAZTEGIA

Aitzate, 19•948630786 •BERA

ALZURI
• Sukalde tresneria eta opariak
• Landare eta loreak
Tel.: 948 630 370 • BERA

Botxo
GASTATUA
© 948630052•Zalain•BERA

LESKA

Feriak pasatu orduko Olentzero Eguna eta Eguberriak gainean dira

Abendu hasieran ebastera sartu dira etxe batzuetan

AITOR AROTZENA

Makukobordako Luis Olaetxea eta Berreuko Juanan Prietok aurkeztutako aziendak izan ziren aurtengo ferietako irabazle nagusiak. Egia erran behar bada, behi guti agertu ziren plazara, hamalau bakarrik. Honela, holandesarik aurkeztu ez zenez, hutsean gelditu zen saria. Suiza arrazako behiei emandako hiru sari nagusiak Makukobordara joan ziren. Haragitako behietan berriez, bi lehendabiziko sariak Berreukoentzat izan ziren. Hirugarren saria eta behi azienda onenari emandako plaka Makukobordara joan ziren. Azken urteotan bezala, zaldi azienda dexente ikusi zen plazan, 59 buru. Martin Alzugaraik eraman zuen lehen saria, Jose Antonio Anduezak bigarrena eta Juan Bautista Urrozek hirugarrena.

Ahari lehiaketara hiru buru aurkeztu ziren, hirurak Etxalarakoak. Lehendabiziko eta hirugarren sariak Intzabordako Josetxo Ariztegik jaso zituen eta bigarrena Barbenekobordako Rosalio Gaintzak.

Baina azienda lehiaketaz gain, egunpasa po-



Olentzero lehiaketak gisa honetako irudirik utziko digu aurten ere. Argazkia 1996koa da.

Artxibokoa

lita egiteko modua eman zuen Feria egunak. Gisa guzietako generoa saltzen zuten dendak, musika, pilota partiduak, herri kirol saioa... AEKren aferaren inguruan, egun berean Madrilen deklaratzera deitua zen Eduardo Konde herritarra ere gogoratu zen, plazan egin-dako kontzentrazioa eta manifestazioaren bitartez.

Bezperan, Beti Gaztek antolatutako ajoarriero lehiaketan Julen Zubieta eta Ketzu Aiestaran suertatu ziren irabazle, aurkeztutako laubikoteen artean.

Olentzero eta jaiotza lehiaketak

Eta feria eguna ahan-tzi baino lehen, bertan ditugu Olentzero Eguna, Urtezaharra, Errege Kabalgata... Eguberriekin lotutako ospakizun guziaz.

Hasteko, igande honetan egingen da Olentzero eta jaiotza lehiaketa, eguerdi aldera. Goizean baserri berririk ibiliko dira gazteak olentzeroekin eta arratsaldean herriko etxeak bisitatuko dituzte.

Urtezahar gauean, azkeneko urteetako ohi-turari eutsiko diote abestazakoek, «Dioste-

salve» kantuaren doinuak karriz karriz hedatuz. Errege bezperako kabalgata ere ez du hutsik egingen aurten.

Ongi pasa egun hauek eta urte berri on!

Ebastera sartu dira etxe batzuetan

Olentzero eta Erregeak baino lehen lapurrak ere sartu dira herriko zenbait etxe eta baserrietan abendu hasiera hortan. Aditu dugunez, ez dute balio handiegiko gauzarik ebas-tea lortu, baina zenbat etxetan sartu diren ikur-sita, bizi-bizi mugitzen direla argi dago.

Personaiak

AEKren aurkako autoan deklaratzera deitu zuen Garzon epaileak

Espainiako Auzitegi Goreneko Baltasar Garzon epaileak AEK elkartearen aurka egindako autoan deklaratzera deitu zuen Eduardo Konde azaroaren 30ean. Deklaratu ondotik, inolako kargurik eta fidantzarik gabe aske utzi zuten. Bertze inputatuek aste honetan egingen dituzte azken deklarazioak. «Orain, Garzonek agintzen duenaren esperoan nago -dio Eduardok- inork ez baitaki gizon hau nondik ateratzen ahal den». Hamabi urte AEKn aritu zen Eduardo Konde. Berak erran digunez, «Garzonen argudioak funtsgabeak dira. Iruzur egitea leporatzen digu, irakaskuntzan ari direnek BEZarik ordaintzen ez dutenean eta 1996an Eusko Jaurlaritzarekin akordioa sinatu arte AEKk langile-rik ez zuenean. Hortikan, gainera, ETAREN kolaboratzaile ginela ondorioztatzen du. Sinestezina da!».



Eduardo KONDE

LORE ETXALARRAK
Lore eta landareak
© 948 63 78 26
Frain auzoa • LESKA

IRU BIDE
ERRETEGIA
Tfnoa: 948 637 127
LESKA

ANNA
Janaridenda
Bittiria 41 • 948 637518 • LESKA

KATTU
ostatu - jatetxea
Plater konbinatuak eta menuak
© 948627573 • LESKA

kiskun
Ileapaindegia
Tel: 948 637429
Bittiriako Plaza, 3 behea
LESKA

ETXALAR

Laurogei urte bete dituztenak omendu ditu Larraburuak

Uso denbora exkaxa izan da aurtengoa

JOSEBA ETA NEREA

Urtero bezala, Xabierreko San Frantzisko egunean, abenduaren 3an, bazkari eder bat egin zen Larraburuak elkartean. Honen ondorenik, aurten 80 urte bete dituztenei omenaldi tiki bat egin zitzaion, lore sorta eta oroigarri bat emanez. Omendutakoak, bortz izan dira aurten: Juliana Elizalde, Rosita Zubieta, Geronimo Pikabea, Jose Bertiz eta Maritxu Agesta. Zorionak eta aunitz urtez denei!



Jose Bertiz, Rosita Zubieta, Juliana Elizalde, Geronimo Pikabea eta Maritxu Agesta omendu ditu aurten Larraburuak. Maritxuk ezin izan zuen omenaldira agertu. Sasoian ikusten dira oraindik omendutakoak.

Argazkia: Joseba Olagarai

Uso denbora exkaxa

Urriaren lehenbiziko egunetan hasi zen uso-denbora azaroaren 20an akautu zen. Uso aldetik ongi hasi baziren ere joan den urtean baino 19 dozena guttiagorekin gelditu dira: 107rekin. Gerardo Danboriena usazalearen hitzetan «txar-txarra ere ez da izan. Arrarora errango nuke nik. Hasi ongi egin ginen baina urriaren azken aldera euria eta haizegoa

etorri ziren. Azaroan ez da egun on bat ere izan. Denetara 107 dozenarekin konformatu behar izandu gara».

Hala ere, usategietan biltzen diren uso guztiak ez dira sareetan gelditzen. Ehizturiek ere biltzen dute urtero-urtero uso-kopuru ederra. Aurtengoa, aldiz, ehizturientzat ere sasoi txarra

izan da. Joxe Mari Maia ehizturiak kontatu digunez: «Balorazio exkaxa egiten diot nik aurtengo sasoiari. Ipar haizia beharrezkoa da eta aurten hortik ez dugu aunitz izan. Usoetan ez dugu iazko erdia ere hartu. Bakotzak ez du 20-22 uso baino gehiago eraman izanen aurtentzera».

Harrera ona kultur ekitaldiei

Zirimolanek bi ekitaldi antolatu zituen Etxalarren; hitzaldi bat eta zine-emanaldia. Bertara hurbildutako jendea sobera izan ez bada ere, aipatzekoa da kanpotik jende aunitz etorri zela. Ondorioz, harrera ona izan zuela erran daiteke.

flash

Herri lurrak probexteko ordenantza

Herri-lurren aprobe-txamendua arautzen duen ordenantzan ondoko prezio-aldaketak egin dira: Luberritze guziak 6.384 pezeta urte eta hektarea bakoitzeko. – Ttorttoil postuen zozketan parte hartzeko 300 pezeta (BEza barne). – Sugegura 750 pezeta eta piketeak 55 pezeta.

Ur-hornidura tarifa

Ur-horniduraren tarifa ere aldatu da. Hemendik aitzinera 21 pezeta izanen dira metro kubiko bakoitzeko. Guttinekoa 30 metro kubiko izanen da hiruhilekoan, 21 pezetatan bakoitza. Honetaz gain, saneamenduaren tarifa berriaren arabera 11 pezeta izanen dira benetan kontsumitutako ur metro kubiko bakoitzeko. Beraz, 32 pezeta kostako da metro kubikoa.

Hilerriko ordenantza

Kanposainduko ordenantza ere onartu da. Herrian lurperatzeko, herrian enpadronatua egon behar harko da.

BORTZIRI UNSION ANAIAK
sukalderako haltzariak

ERAKUSKETA
Bereau etxea • LESAKA
Tel eta Faxe: 948 637 266

OBRA PROIEKTUAK

- ✓ Etxe berriak eraikitzeko
- ✓ Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik
- ✓ Urbanizazio proiektuak
- ✓ Obra-zuzendaritza

Udalendako aholkularitza-zerbitzua hirigintza lanetan

BIDASOA
arkitektura bulegoa

Bittiria, 45 • © 948 637 503 • LESAKA

loredenda

Albistur, 39-K
627542
LESAKA

- bitxikeriak •
- opariak •
- enmarkazioak •

IGANTZI

Berrizaungo auzotarrak kezkatuak auzoan paratu nahi den enpresarekin

Auzoari kalte aunitz ekartzen ahal diola uste dute

OSKAR TXOPERENA

Azken bolada honean herrian hautsak ederki harrotu diuen gaia dakarkigu oraingo ale honetara. Berrizaunena Orsa enpresak paratu nahi den industria berriaz ari gara. Aipatutako enpresa Lesakako Alkaiaga auzoan ari da lanean gaur egun, Txantreren harrobiaren inguruan, eta ezagutzen ez diren arrazoiengatik asfalto beroak prestatzeko planta Berrizaunera ekartzea erabaki zuen. Horretarako, Berrizaungo industria eremuan lur zati bat erosi zion ATM-ri, gibelesko aldean.

Auzotarrek, honen berri izan zutenean, zenbait aldiz bilera eskatu omen zioten alkateari, euren erranetan «karta zertifikatuz ere», baina erantzun positiborik lortu gabe, nonbait. Gau-



Abesbatzaren emanaldia larunbat honetan elizan

Heldu den larunbatean, abenduak 23, ilunabarreko 9etan, urteroko kontzertua eskainiko du elizan Igantziko Abesbatzak. 8etako mezan abestu ondotik, kanta sorta ederrez osatutako ekitaldiari ekinen diote, hasieran organoarekin batera korutik, eta ondotik, behetik bakarrik. Bi zati hauen artean berrikuntza izanen da aurtengo kontzertuan, herriko musika eskolako haurrek ere parte hartuko baitute, pianoa, txistu eta kantuz. Oskar Txoperena

zak horrela, hamabortzen bat auzotarrek abenduaren 7ko plenera joatea erabaki zuten, «hauekin elkartzeko

modu bakarra baita». Pleno aretoan, euren kezka agertu zizkieten zinegotziari eta «inongo aportazio positiborik

egin gabe, Berrizaungo auzoari kalte aunitz ekartzen ahal dizkion enpresa bertan ez onartzea» eskatu zieten.

Mus eta Partxis

Hilabetearen hasieran akautu zuten Baratzondokoek mus eta partxis Txapelketa. Musean Pascual Iguzkiagirre eta Jesus Mari Sein suertatu ziren garaile, finalean Anuntxi Txoperena eta M^a Paz Petrikorenari irabaziz. Partxisean, berriz, Meltxor eta Justa Seinek irabazi zuten txapela, finalean Asuncion eta Ines Sein mendean hartuz. Kasu honetan, dena familian gelditzen.

Bitartean, Biltokin ere abenduaren 10ean hasi zuten euren ari. Otsaila aldean akautuko den Txapelketarako 16 bikotek eman dute izena musean eta 10ek partxisean.

Olentzeroak

Egun gutti batzuk falta dira eguberriak hasiteko eta nabari dira herrian barna Olentzeroen prestaketak: karroak harat eta honat, gazteak ezpel garraio, bertze batzuk arto lastoarekin..... Ea azken urteotan bezalaxe egun polita pasatzen dugun igande honetan.

XATURETXEA

JATEIXEA
 Tfnoa: 948637027 **LESAKA**

BERRAZUN
 CONSTRUCCIONES MECANICAS
 Makinaria eraikuntza
 Moldaketak eta despiezea
 Mantenimendu mekanikoa
 Torno, fresadorak, errektifikadorak
 Igantziko Bentak • © 948 627572 • Faxa: 948 637508

GAZTANDEGIA

LIZUN
 Etxeko
 Ardi Gazta
 Petxenekoborda • Tfnoa: 948 450 862 • **SUNBILLA**

TRATAMENDUA

Altzari eta zurarena orokorrean (Tarima rastrelak)

Bi aldiz hustu eta Proclav babeslea emanaz **Termita, pipi eta sitsak** kentzen ditu eta babesla ematen dio zurari.

metro luze x metro zabal x metro erdi sakoneko komoda

8.000 pezeta (+BEZ)

LESAKA Tratamendu Zentrua • **ZUTABE** • Otxango industrialdea 7 • Tel: 948 637579
ELIZONDO • **MALLENEA** Dekorazioaren laguntzarekin • Braulio Iriarte 32 • Tel: 948 581848



DEKAPATUAK

ZURA eta **BURNITIK** pintura eta barnizak kentzeko hare-zorrotada eta dekapanteak erabiltzen ditugu.

metro luze x metro zabal x metro erdi sakoneko komoda

10.000 pezeta (+BEZ)

ARANTZA

Igantzi eta Arantzako Herriko Etxeetako idazkaria hautatzeko probak hasi dira

Arkupeak elkartekoak, bertzalde, Paris, Belgika eta Holandara joanen dira ekainean

ELIXABET ETA GARBIÑE

Arantza eta Igantziko Udalen idazkari lanpostua betetzeko deialdia dela eta, oposizio-lehiakaren egunak jakinarazi dira. Horrela, abenduaren 11ko goizean Arantzako Herriko Etxean epaimahaia osatu eta lehiaketa hasi zen. Biharamon goizean, leku berean euskarazko froga egin zen.

Hurrengo froga datorren urtarrilaren 10ean, goizeko 10etan egingen da. Arantzako eskolan proba teoriko-praktikoak egingen dira.

Arkupeak elkartearen bidaiak ekainean

Heldu den urteko ekainaren 18tik 27ra egingen duen bidaiaren berri eman du Arantzako Arkupeak elkarteak. Paris, Belgika eta Ho-



Arkupeak elkarteak Paris, Belgika eta Holanda bisitatzeko intentzioa du heldu den urteko ekainean.

Artxibokoa

landa bisitatu dituzte hamar egun horietan eta bidaiaren prezioa 132.000 pezetakoa da. Edozein joaten ahal da, baina martxoaren 1a baino lehen jakinarazi beharko dio Martin Legarriari.

Garbiketarako lehiaketa

Datorren urtean mediku kontsulta, Herriko Etxea eta eskolen garbiketa zerbitzua hartzeko proposamenak aurkezteko epea abenduaren 29ko eguerdiko ha-

mabiak arte zabalik egonen da. Baldintza ple-gua kontsultatu nahi izanez gero, Herriko Etxeko idazkaritzan izanen da. Urtarrilaren 2ko udal batzarrean egingen da aurkeztutako kartazalen irekiera.

Haizeen eragina

Abendu haserako astean egindako haize ika-ragarriak txikizio de-zente sortu zituen herri-an. Zuhaitzetan eta erre-pide bazterretan ikus zitekeen haizearen eragina, baina txikizio-rik handiena Eguzkial-dea auzoko Irulegi ba-serrian egin zuen, hai-ze kolpe batek teiltatu guztia altxatu eta bota baitzuen.

Kanposantua handitzea

Kanposantua handi-tzeko lanak 2000. urte-ko Herri Azpiegitura Planaren barnean sartu ditu Nafarroako Gober-nuko Leku Administra-zioak. Lanen aurrekon-tua 12,55 milioi peze-takoa da. Nafarroako Gobernuak 5,24 milioi pezeta ordainduko ditu. 374 metro koadro han-diagoa egingen da.

Irungo errep. - BERA - Tel. 948-631317

HARRI NATURALA

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzinaldeak	Tximiniak
Angeluak	Erlaizak
Orma antzinak	Moldurak
Leihoak	Zokaloak
Ateak	Hilarriak
Arkuak	Marrazkiak
Pilareak	

'Abujandakoa' Mazzoa
Zahar antzekoa Txapeatua

ZINTARRIAK
ADOKINAK
ZOLAK

**ALBERGIA
JATETXEA**

© 948 634179
ARANTZA

EDARRIAK

MANUELA IBAÑETA S.L.

Berako N.º 82 31100 BERA (Nafarroa)
Tel. - Fax 948 63 10 27

DROGUERIA MOLINERO

• DROGERIA • LURRINDEGIA • OPARIAK •

2.000 kolore baino gehiago lortzen ahal duen makina
10 minututan zuk nahi duzun kolorea
Profesionalentzat prezio berezia

Eztegara 19 • © 948 63 02 40 • BERA

DONEZTEBE

Patxi Astiz jostunari omenaldia eskainiko zaio Santa Luzia egunean

Malerrekako eskulangile eta artisauen lanak ere ikusgai eta erosgai izan ziren

PATXI IRIARTE

Abenduaren 13an, Santa Luzia eguna ospatu zen Donezteben. Goizean Malerrekako artisauen erakusketa eta salmenta izan zen eliza atarian. Bertan, eskulana egin eta bertako produktuak lantzen dituzten hainbat lagun izan ziren: Florentino Ibarra (larrua), Monica Hosterei (zeramika) Kimu (zeramika), Fausti Juanotena (zeramika), Daniel Fioramante (zeramika), Bittoriano Arzuaga (artilea), Miguel Urroz (zura), Jose Luis Olaizola (zura), Miren Lizasoain (eztia), Carlos Mindegia (gasnak) eta Joxepa Loiarde eta bere koadrila (Zubietako taloak).

Santa Luzia, jostun eta arropagileen zaindaria dela kontuan hartuz, Meza Nagusiaren ondotik, Doneztebeko Udalak jantzigile izandako Francisco Astizeri Urrezko Titarea eman



Malerrekako artisauen lanak ikusteko eta eros-teko modua izan zen Santa Luzia egunean.

Argazkia: TTIPI-TTAPA TB

nahi zion, baina omen-dua bidai batean zegoenez, itzultzen denegar gorde zuten oparia.

Gero, Manolo Arozena eta Bittor Elizagoien aritu ziren, bertso kantari, Estitxu Arozenak jarritako gaiei erantzuna emanez.

Santa Luzia egune-ko ekitaldiak akitzeko, haurrek gozatzeko aukera ederra izan zuten arratsaldean, txotxongiloen emanaldiarekin.

Azken urteotan, kasik galdua zegoen Santa Luzia egunaren ospakizuna berreskuratzeko lanean ari da Doneztebeko Udala, Nafarroako Gobernuaren, Cederna-Garalur elkar-teen eta Bertizko Turismo Partzuergoaren laguntzaz. Ondorioz, doneztebarrek herriko bertze besta egun bat bezala hartzen ari dira poliki-poliki jostunen eguna.

SUNBILLA

Olentzero, kabalgata eta ñauteriak prestatzen ari da Antzakaitz taldea

Larunbat arratsaldetan biltzen dira

JAIONE ETA ALBA

Olentzerorako entsaioak larunbatero burutu dira. Jendea goizeko 11etan bildu da eskola zaharrean, Olentzeroko kantak entsaiatzeko. Antolatzaileek adierazi dutenez, aurten adin guztietako jendeak parte hartzea nahi dute, ohitura zahar hau ez galtzeko.

Bertzalde, Olentzero gure karriketatik pasiatuko da abenduaren 24an. Beheko eskolatik aterako da arratsaldeko 3etan eta gero berrendua izanen da Ulbeltzak elkartean, parte hartu duten guztientzat.

Antzakaitz kultur taldea ekitaldiz ekitaldi

Negu honetarako ekitaldi desberdinak antolatzen hasi dira Antzakaitz kultur taldekoak. Olentzero, Errege Kabalgata eta segidan etorriko diren

ñauteriak dira orain prestatzen ari diren gauzak. Ñauterien ondotik, berriaz, Asteburu Kulturala prestatzeko intentzioa dute. Larunbatero, arratsaldeko 3,30etan biltzen dira Iturburu ostatuan. Bilerak idekiak direnez, parte hartu nahi duen edonorentzat zabalik daude.

la hamabortz milioi baserrietako bideak moldatzeko

Sunbillako Indanabaita-Irageta, Dantzainekoborda-Arretzekoborda eta Xuriaren-Irageta bideak zolaberritzeko lanak 2000. urteko Herri Azpiegitura Planaren barnean sartu ditu Nafarroako Gobernuko Leku Administrazioak. Aurrekontua 14,48 milioi pezetakoa da eta Nafarroako Gobernuak 10,86 milioi pezeta ordainduko ditu. Guzira, 2.144 metro koadro zolaberrituko dira.



APARAN, S. A. BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 450 133
948 451 541
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

Baztanen...



LOREDENDA • GARDEN CENTER

ESTHER FUNERARIA

Hilkutxak • Hilautoak • Eskelak • Dokumentazioak • Beztitzeak, etab...

24 orduko zerbitzua

Eta Iruñean...



IRACHE TANATORIOA

Iratxe Monastegia, 60
Tfnoa: 26 09 54

Aritzondo, Bergara auzoa • Tfnoa: 948580971 • **ARIZKUN**
Errepide Nagusia • Tfnoa: 948592200 • **NARBARTE**
Jaime Urrutia 39 • Tfnoa: 948580668 • **ELIZONDO**

MALEERREKA

Jende aunitz ibili da Ibintzak prestatutako Iturengo Kultur Egunetan

Argazki Rallyan hogei argazkilarik hartu zuten parte

IBAN ISASI

Abenduaren 7an hasi eta 10era bitarte Kultur Egunak antolatu zituen herrian kultur ekitaldiak antolatzen hamar urte daramatzan Ibintza kultur taldeak. Ortzegunean hasi ziren, urtero-urtero jende aunitz biltzen duen ekitaldi batekin, talo jatearekin. Momentu hartan ireki zen Argazki Rallyan ateratako argazkien erakusketa eta jendeak argazki onenak bozkatzeko aukera izan zuen. Ondotik, nahiko berandu, pelikula bat eskaini zen.

Biharamonetan, abenduaren 8an, haurrei zuzendutako eguna izan zen. Eguerdialde Ginkana eta ttikienendako tailerra antolatu ziren. 50 haur inguru elkartu zituen Iturengo eskolako irakasleen laguntzarekin antolatutako bazkariak. Arratsaldean, haur jokoak eta pelikula izan ziren.

Larunbatean, euskal presoen bizi baldintzei buruzko hitzaldia izan zen, eta argazki era-



kusketako azken botoak bildu eta zenbatu ondotik, sari banaketa izan zen. Lehendabiziko postuan, 106 boturekin, Joseba Puerto gelditu zen eta irrati-kasette bat irabazi zuen, «Txispi zakurra», «Udazkena-negua» eta «Pasa den mendeko zerbait» orrialde honetan ageri diren

argazkiekin. Bigarren postuan Josefa Goñi gelditu zen, 63 boturekin, «Nekazal tresna» eta «Argazki originala» argazkiekin. Argazki kamara eta artxibategia eraman zituen. Hirugarren postuan Maider Bereau gelditu zen, 39 boturekin, «Zubi erromanikoa» eta «Konta-



Joseba Puertok irabazi zuen Ibintzak antolatutako argazki rallya. Txispi zakurrari, udazkena-neguari eta Buztinitturri iturriari ateratako argazkiek 106 botu jaso zituzten.

minazioa» argazkiekin. Egunari akabaila emateko, afaria eta dantzaldia izan zen Herriko Ostatuan, 50 lagun bilduz.

Akitzeko, igandean, Imuntzo eta Beloki eta bere taldeak 25. urteurreneko kontzertu bikaina eskaini zuen Herriko Etxeko arkupetan.

Saldias eta Labaien arteko errepidean argi berriak jarriko dituzte

Saldias eta Labaien arteko errepidean argi berriak jartzeko proiektua 2000. urteko Herri Azpiegitura Planaren barnean sartu du Nafarroako Gobernuak Leku Administrazioak. Aurrekontua 1.284.430 pezetakoa da eta 850.293 pezeta Nafarroako Gobernuak jarriko ditu. Bidean bortz farola berri paratzeaz gain, Saldiasko herrigunean dauden bertze lau aldatuko dira.

Saldiasko Danbolina Bordako bidea moldatzeko lanak ere 2000. urteko Plan beraren barnean sartu dira. Lanen aurrekontua 4,24 milioi pezetakoa da eta Nafarroako Gobernuak 2,81 milioi ordainduko ditu. Ormigoia botako da bidean eta bide bazterra ere ormigoiez egingen da.

Ahuntzak biltzeko deia Ezkurran

Urtea bukatu baino lehen mendian dauden ahuntzak biltzeko deia egin du Ezkurako Udalak.

H. Lopez
iturgintza

- Kalefakzioa
- Gas Instalazioak
- Iturgintza industrial
- Greztatze sistemak

Tel.: 948 45 21 26
Mug.: 617 34 99 44
NARBARTE

ETXANDI TXOKO
jatetxea

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN / Tfnoa: 948 45 04 91

BELARRA
OSTATUA - JATETXEA

Amezitia karrika • DONEZTEBE
Tfnoa: 948 45 03 06

Kanizua
LENTZERIA

Eguberri zoriontsuak eta urte berri on opa dizkizuegu

Parrokia 11 • DONEZTEBE
Tfnoa: 948 45 01 12

LESKA



URTE ZAHARREKO AFARIAK

2000

Urteberri on

2001

ETXANDI TXOKO jatexea

Iberikoak
Piperrak onddoz beteak
Langostinoak plantxan

Salda

Bixigua labean errea

Solomilloa guarnizioarekin

Limoi sorbetea kobarekin

Turrak sorta

Ardo bereziak, Codorniu kaba
kafea, kopa eta puroa

Urtezahar mahatsak

Prezioa 4.800 Pta.

Erreserbak 948 450 491
ITUREN



Urte Zaharreko afariak aukeran
afal ondoko giroa alaitzeko
trikitilariak arituko dira.

Hamabietan mahatsak eta ondo-
tik...saski eder bat zozketatuko
da.

Goizaldera baratxuri zopak.

*Eskaerak egiteko
deitu lehenbailehen*

948 634 179 - ARANTZA



AMEZTIA jatexea

Iberikoak aukeran

Langostino egosiak

Antzar pateak

Vol-au-vent onddoz beteak

Xapoa almejekin

Solomilloa roquefort erara

Piku biskuita txokolate kremarekin

Kafea, likoreak, Hugo ardoa
eta Codorniu kaba

Zariontasun mahatsak eta
kotilloi boltsa oparitzen dira

Pertsonako 7.000 Pta (BEZ barne)
Eskaerak abenduaren 29 arte

948 450028 • DONEZTE



HERRIKO OSTATUA ETXALAR

Micuit tarrina xolamo iberikoarekin

Arroz salda almejekin

Bixigutxo errea bere xaldarekin

Aretze solomilloa onddoekin

Etxalarko konpota

Eguberrietako gazokiak

Ardoak eta Cava
Kafea, kopa eta puroa

Zariontasun mahatsak
eta kotilloi boltsa

Prezioa: 6.000 Pta. (BEZ barne)

Tinao: 948 635290 • ETXALAR




ZYBionDO JAtETXEa

Zalain jatetxearen jakinduri onari esker
idekiko da ZUBIONDO jatetxe berria.

••••
350 lagunendako bankete jantokia

••••
160 lagunendako sagardotegi-erretegi-jantokia

••••
40 lagunendako erreserbatua karta bereziarekin



EGUNEROKO MENUAK ETA KARTA

Alkaiaga poligono berria - Alasta karrika
LESAKA - Sarrera Beratik



Baserriak, bordak, familia bakarrekoak,
atseden etxolak, etxeak, lur-eremuak etab...

Bulego nagusia:

Bartolome de Carranza 38-40 behea - © 948 198172 - IRUÑEA

DONEZTEBEn

Intzakardi 5 - © 948 45 15 18

Bilazen ari zinen inmobiliaria



LARRAINTZAR. ULTZAMA

Harrizko etxea. 160 m² solairu bakoi-
tzak. Berritzeko. Bi familia edo nekazal
turismorako.



EZKURRA

Harrizko etxea, lur-eremu tiki batekin.
Bista onak. Prezio negoziagarria.



ELIZONDO

Saioa ostatuaren gainean, bizitzen jar-
tzeko prest, pisu zoragarria. 90 m².



EZKURRA

253 biztanleko herria. Iruñeatik 58 kilo-
metrora. Leizarango autobiatik 11 kmra.
Bizitzen jartzeko prest. Bi familiarend-
ako egokia, lu-eremuarekin.



DONEZTEBE

Lorategiak dituen etxea, bi familiaren-
dako egokia edo nekazal-turismoa edo
erresidentzia, etab... 45.000.000 pta.



LERIN

Erriberako balkoia, 1.932 biztanle,
Iruñeatik 55 kilometrora. Laster atse-
den-etxeak eginen dira, ura, argia,
1.000 m² eta Ega ibaiaren bazterrean.

Guria
DROGERIA
LURRINDENDA

Opariak
Bufandak, pash-
minak, xalak,
painuluak,
fularrak.

Bisuteria,
lurrinak,
polsak,
opariak

Altzate, 37 • BERA • 948 630 388

MENDIKO MATERIALA

TXANDALAK

KIROL OINETAKOAK

**IPARLA
KIROLAK**

Santiago, 51 - 948 580 585
ELIZONDO

Malkorra

GOZOTEGIA

URREKIN EGINA

**ETXEKE TURROIA ETA
MAZAPANAK**

948 580 061
ELIZONDO

Beatriz
ileapaindegia
DONEZTEBE

Eguberrietarako
orrazkerak
Koloreak
Koloniak

**Aukera
zabala
zilarrezko
bitxietan**

San Miguel auzoa
948 450 922
DONEZTEBE

Deñe
Lentzeria

Behoko plaza, 8
Telf.: 948 627 514
LESAKA

YOAN
ileapaindegia

Eguberrietarako
orrazkera
berezirik
nahi
baduzu deitu

Bidasoa, 8
948 630 177
BERA

Ganbara

Dekorazioa
Opariak: kristaleria,
portzellanak, moble osagarriak

Karrika nagusia, 19 - 948 451 921
DONEZTEBE

Amaya

- Lurrindenda •
- Apaindegia •
- Oparidenda •

- Larruan, boltsoak, karterak...
- Lurrinetan lehen markak
- Painuluak, pashminak...
- Bitxiak

Ameztia
karrika, z/g
.....
948 450 163
.....
DONEZTEBE

**JUAN J.
PIKABEA**

GIZONEZKOEN ARROPADENDA

BAKEROAK:
Diesel, Bonaventure, Lois, Lotus.

BARNEKO ARROPA:
Punto Blanco, Pierre Gardin.

Galtzak 64 taila bitarte.
Atorrak 50 taila bitarte.

Ameztia z/g
Tfnoa: 948 451 670
DONEZTEBE

Balleko herrietako eskola guziek K@zet@ proiektua landu dute

Ikasleek egindako lan ederrak ikusgai daude Internet-en

TTIPI-TTAPA

Gan den urtean egindako lanari (ziberipuin@) segida emateko, K@ZET@ proiektua aurkeztu dute Baztango herrietako eskolek. Proiektu hauen bitartez, ikasleek teknologia berriekin, informatikarekin eta Internet-ekin ohitzea nahi da. Iaz, eskola batzuk bertzerik ez zuten parte hartu egitasmo honetan, baina aurten Baztango herrietako eskola guziak aritu dira, izen propioarekin gainera: www.kazeta.org.

Internet-eko orrialde horretarat ganez gero, ikasleek egindako lan ederrak ikusteko aukera izanen da (elkarrizketak, ipuinak, kantar, erreportaiak, etab...). Ikasle eta irakasleek adierazi digutenez, «*oraindik pazientzia eskatzen dizuegu, hasi bertzerik ez dugu egin eta*». Internet-guneko informazio atalean proiektu honen gorabeherak ere agertzen dira.

Aurtengoan, Nafarroako Gobernu Tek-



www.kazeta.org web gunera ganez gero, gisa honetako ongiatorri orrialdea harpatuko duzue.

nologia berriak eta Hezkuntza Programan sartu da proiektua, iaz ez bezala.

Erratzuko Kultur elkarteak zozketa mundiala ginen du

Erratzuko Kultur Elkarteak urtarrilaren 5ean, Lotería Nacional delakoaren «el niño» zozketarekin batera sei saski zozketatuko ditu.

Saski hauek Erratzuko hiru ostatueta eta Izpegiko hiru bentetan daude ikusgai eta bakoitzaren zenbakiak bertan aurkituko dituzue salgai.

Saskia eskualdeko janari ekoizleek egindako produktuz beteta dago: Arkupe goxotegiak egindako turrona, Irular mermeladak eta gozoak, Baztan gasna-

tegiko ardi-gasna eta gaztamiñe, Baztan li-koreak egindako patxarana, Ohian mermelada, Autxitxiakoe egindako ardi-gasna eta gaztamiñe eta bertze hainbertze. Erratzuko kultur elkarteak lerro hauek aprobetxatu nahi dituzozketa posible egin duten lagun hauei eskerrak emateko eta jendeari eroatera animatzeko.

Errotaberri errota museo eta landa etxe izateko moldatuko da

Zugarramurdiko Udalak elkarlan hitzarmena sinatu du Nafarroako Gobernu-ko Komertzio eta Turismo eta Kultura zuzendari nagusiekin. Hitzarmen honen arabera, Errotaberri errota moldatu eta museo eta landa etxe izateko zabalduko da.

Proiektua Zugarramurdiko Udalak aurkeztu zuen, honela herriko turisma indartuko delakoan. Errotaberri 1774. urtean egin zuten eta herri-rik bi kilometrora dago, turismorako egokia den inguru batean. Etxea berreskuratzeko moduan dago: harrizko paretak ongi daude, egurrezko zutabeak gaizki xamar eta teilatua erortzeko puntuan. Beraz, teilatu berria egin behar da. Errotari dago-kionez, ia pieza eta harri guziak egoera onean daude.

Errotaberri moldatzeko eta egokitzeko lanek gutienez 20 milioi pezetako aurrekontua izanen dute. Zortzi milioi terdi Komertzio eta Turismo Zuzendaritza Nagusiak jarriko ditu eta bertze horrenbertze Kultura Zuzendaritza Nagusia-Bianako Printzea erakundeak. Gainerako hiru milioiak Zugarramurdiko Udalak jarri behar du.

Behin moldaketa lanak egin ondok, Udalak errota irekitzeko eta zaintzeko lanpostua sortu behar du.

Plaza Zaharra, 14 • ☎ 948 637 721 • **LESAKA**

ARGIBEL OPTIKA

Orain Donezteben ere

☎ 948 581 391 • Santiago 62 • ELIZONDO
☎ 948 450 345 • Intzakardi 7 • DONEZTEBE

Aukera zabala

- ☞ Anteojoak
- ☞ Lentillak
- ☞ Audifonoak
- ☞ Errebisioak

Eguberrietan operitu eguzki betaurrekoak!

BAZTAN

Herrietako alkate eta kargodunak aukeratuko dira Eguberri Egunean

Errege egunean kontuak agertuko dituzte

TTIPI-TTAPA

Eguberri eguna leku guzietan berezia baldin bada, aurten Baztanen oraindik bereziagoa izanen da, herrietako alkate eta kargodunak aukeratzeko eguna izanen baita. Halere, azken urte hauetan jende guti agertzen da boza ematera. Gainera, alkate izateko prest daudenak ere arras guti izaten dira, obligazioe aunitz bai, baina baliabide eskasak izaten dituztelako. Behin baino gehiagotan aditu dugun arrenkura da: «Herri ttailotan alkateak ezin du gauza aunitz egin. Asmo aunitz bai, baina diru guti izaten dugu».

Alkate eta kargodunekin batera, Baztan-goiza, Basaburua, Elizondo eta Herbereko kuarteletako juntakideak ere hautatuko dira.



Patxi Izko Barberia Elizondon apeztu zen

Patxi Izko Barberia, 32 urteko iruñearra abenduaren 10ean Elizondoko Santiago elizan apeztu zen, bi hilabetez diakono gisa aritu ondotik. Baztandarrek leporaino bete zuten eliza, hemendik aitzin Irurita eta Arraiozko erretorea izanen denaren apez egite ospakizunean. Urteak dira Elizondon ez zela horrelako ospakizunik egiten, azken urteetan apezak Iruñeko katedralean ordenatzen baitira. Ekitaldian, Fernando Sebastian, Iruñeko artzapezpikua izan zen, Javier Azpiroz Elizondoko erretorea eta inguruko bertze apez batzurekin batera. Mezan, Elizondo, Irurita eta Arraiozko korralak aritu ziren kantari.

Argazkia: Diario de Noticias

flash

Kirol merituari zilarrezko dominak

Nafarroako Gobernuak kirol merituari emandako 54 domina banatu ditu. Domina hauekin, kirola sustatzen 25 urte edo gehiago aritu diren pertsonak saritzen dituzte. Aurten, lau baztandarrek jasoko dute sari hori. Pilota munduan, Juanjo Atxa Mindegia, Txarutako ordezkariak. Txirrindularitzan, Iruritako txirrindulari taldeko Tiburcio Almenar Salaberri, Joaquin Garate Urrutia eta Cristobal Urrutia Eugik.

Santxotenaren erakusketa Arizkunenean

Larunbat honetan, abenduak 23, arratsaldeko 7etan zabalduko da Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean Xabier Santxotenaren «Proyecto Experimental» erakusketa. Urtharriaren 21 artio zabalik izanen da, lanegunetan arratseko 6,30etatik 9etara.

Papera biltzeko ontziak eskuratzeko 990.000 pezeta emanen ditu Nafarroako Gobernuak.

Gierreserena
OSTATU - JATETXEA
Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa
 Iturriotz Auzoa • © 592043 • **ORNOZ-MUGAIRI**


ARROPA DENDA

Gazteendako era guzietako arropa
Lanerako arropa

JUAN LARREGI «BITXO»

HUSQVARNA negu promozioa

Motozerretan preziorik onenak...
 eta kate bat eta 5 litro olio katearendako dohainik



STIHL eta JHON SERED Motozerrak salgai

Santiago 10 • ELIZONDO • © 948 580898

GOIZUETA

Kultur-areto bihurtuko dute Herriko Etxeko ganbara

Berrehun lagunetik goiti sartzen ahal dira

ESTEBAN AROTZENA

Orain dela hiruzpau aste hasitako obrak bukatzen direnean, sekulan deustarako erabili ez den Udaletxeko ganbara kultur areto ederra izanen da. Bere egoera negargarriarengatik zinea itxi zenetik herrian dagoen beharra eta hutsunea horrelaxe betetzeko asmoa du korporazioak, egun haue tan jakinarazi duenez.

Udaletxekoek diotenez, ikastaro, hitzaldi eta beste kulturekitaldi- etarako erabiliko da ganbara. Kontuan izan behar da ia 250 metro koadro dela aipatzen ari garen gela hau, beraz berrehun lagunetik goiti sartu daitezkeela inolako arazorik gabe. Goi-

zuetarako nahikoa, Udalaren ustez.

Iparraldera ateraldia

DBHko ikasleek Nafarroako Gobernuak egindako deialdian proiektu bat aurkeztu ondoren Iparraldera ateraldia egin zuten. Inguru haietako euskalkia ezagutzea zen ekintza honen xedea. Hau dela eta, bertako ikastetxe batekin harremanetan jarri ziren, haiekin topaketa bat egin asmoz. Ikastetxe hau Manex Erdozaintzi Kolegioa, Behenafarroako Donaixtibilbarren dago eta hara joan ziren hiru egun igarotzera. Izuran, Behenafarroan, gauak igaroz, inguru horietako bazterrak ikusi zituzten.

Bertso-paper lehiaketa

San Andres eguna ederki aski ospatu zuten aurten ere eskolatan, Hernaniko eta bertako bertso-eskolakoen saioarekin besteak beste. Bertso-paper lehiaketaren irabazleen berri ere orduan eman zen, eta ondorengo hauetxek dira gazteenatik zaharreneira aipatuz: Alaitz Odriozola, Nerea Zabaleta, Aritz Salaberria, Ekaitz Narbarte, Jon Apezetxea eta Maider Etxeberria.

Herri Olinpiadak

Orain arteko markak hautsiz, bederlatzi taldek parte hartu zuten Umore Onak azaroaren 25ean antolatutako Herri Olinpiadetan.



Iparraldera joan ziren DBHko ikasleak goian eta bertso-paper lehiaketako irabazleak, behean.

ARESO

Euskararen Eguna animazioz beterik igaro zen

Seigarren aldiz trikitixa txapelketa egin zen

JUANA MARI SAIZAR

Dagoeneko ohitura bihurtu da abenduaren 8an Guraso Elkarteak antolatutako Negu Festa eta Euskararen Eguna ospatzea. Eguzki ederrarekin esnatu zen eguna eta kalejiran herriko panderojole eta trikitilariak herria animatu zuten. Bitartean, taloaren

usaina zabaldu zen herriko plazan zehar. Pilota partiduek, umeen jolasak eta herriko dantzari txikiak emanaldiak osatu zuten goizeko egitaraua.

Herri bazkarian Xebastian Lizaso eta Andoni Egaña bertsolariak aritu ziren, baita Jaione eta Mikel anai-arrebak beren abestiekin. Sei-

garren trikitixa txapelketa ere egin zen.

Kantu tailerrera joaten diren umetxoak bertso batzuk kantatu zituzten eta hauek izan ziren arratsaldean giro alaiena jarri zutenak.

Ondoren, txokolatada eta dantzaldia izan zen Jaione Olazabalekin. Neska hau, Nafarroako Euskal Kantu



Herriko trikitilari eta panderojoleak kalejiran.

txapelketaren finalean aritzekoa zen larunbatean Donezteben eta saio polita egin izana

espero dugu. Euskararen Egunean, behintzat, bere dohaiak ederki erakutsi zituen.

Mendia eta naturari buruzko argazki lehiaketa antolatu da

Ilbeltzaren 15a baino lehen aurkeztu behar dira lanak

JOSEBA AZPIROZ

Aurrera Kirol Elkarteko Mendibil Mendi Taldeak, «Mendia eta Natura» argazki lehiaketa antolatu du. Gaia mendia eta natura izanen da eta eskualdean bizi direnentzat irekia dago. Gehienez 3 argazki aurkeztu daitezke lehiaketara (20x30 zentimetrokoak). Bi sobre aurkeztuko dira; sobre handian argazkiak eta sobre txiki bat jarriko dira. Sobre handiaren azalean ezizena jarriko da eta txikian, ezizena kanpoan eta norberaren datuak (izena eta telefonoa) barruan. Argazkiak ilbeltzaren 15a baino lehen aurkeztu behar dira, Mai-mur edo Astiz liburutegietan. Lehen saria 15.000 pezetakoa izanen da eta bigarrena, 10.000 pezetakoa.

Olentzeroaren ibilaldia

Goizeko 12etan eskolatik aterako da olentzeroa eta kalez kale ibiliko da umeen kantu eta trikitalarien soinuak la-



Azken urteotan bezala, euskal presoen eskubideen aldeko manifestazioa deitu du Udalak Egoberrietarako.

Artxibokoa

gun dituela. Arratsaldeko 6etan berriz, Olentzeroaren etorrera izanen da. Bertsolari batek ongi etorria emanen dio eta ondoren, txistulariek eta Asketa abesbatzak lagunduko diote herriari buelta ematen. Ondoren, Olentzeroak umeen gutunak jasoko ditu.

Zaborra bereizteko kanpainak arrakasta gutxi

Gogoratuko duzue-

nez, urrian zaborrak bereizteko kanpaina egin zuen Udalak. Jaione Astibia, kanpainaren arduradunaren ustez, bizilagunek ez dute oraindik ongi ulertu zaborra bereiztearen garrantzia. Horregatik, ontzi ezberdinetan zein zabor klase botatzen ahal den erakusteko pegatinak jartzeko intentzioa azaldu du Udalak. Joan den urtean 51.279 kilo beira eta 874.952 kilo zabor sortu zuten leitzarrek.

Gaztetxoei zuzendutako zine emanaldiak

Aurten ere, eguberrietako oporretan gaztetxoei zuzendutako zine emanaldi berezia izanen da herriko zineman. Hilaren 27an, «El profesor chiflado II» pelikula emanen da; hilaren 28koa oraindik bereiztekoa dute eta 29an, «Héroes fuera de órbita». Emanaldiak arratsaldeko 5etan izanen dira.

flash

◆ Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko

bulegoko telefono zenbakia aldatu egin dute. Hemendik aurrera honetara deitu behar duzu: 948 510 840.

◆ Urtezaharra euskal presoen eskubideen alde

Udalak, azaroan egindako batzarrean, «Euskal Presoen eskubideen alde» le-mapean manifestazio bat konbokatzea erabaki zuen. Manifestazioa hilaren 3In, arratsaldeko 6etan izanen da.

◆ Antzerkia eguzte aldatua

Abenduaren 16rako iragarrita zegoen Txalo produkzioak taldearen «Bere emaztea kapela batekin nahasi zuen gizona» antzezlan, hilaren 23an izanen da, taldeak data aldarazi duelako. Egunkarietan lan honi buruz argitaratutako kritikak oso onak izan dira.

◆ Buitraker taldea Torrean ostiralean

Abenduaren 22an, ostirala, gaueko 12etan, Torrean tabernan, Buitraker taldearen kontzertua izanen da. Sarrera 500 pza. ordaindu beharko da.

◆ Leitzarik autobidera

sartzeko biribilgune edo errotondan moldaketa batzuk egiten ari da Nafarroako Gobernuko Herrilan Departamendua, beraz, arreta handiz gidatu behar da orain inguru horretan.

gaztelu scl
iturgintza
kalefakzioa saneamendua gasa
© 948 510086 / 510156 • fax: 948 610856 • LEITZA

ttipi-ttapa Zure publizitatea
etxe xoko
guzietan
7.100 harpidedun
24.000 irakurle
© 948 63 11 88

FUNERARIA ZERBITZUAK
Lesaka-Donoztebe
MALDAERREKA, S.L.
24 ordutako zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irongo ospitaletatik
edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 948637404 • LESAKA
Tfnoa: 948450475 • DONEZTEBE

Tokiko euskara bultzatzen saiatuko da Olhain Ikastola

Honela agertu zuen Ainhoa Zelaia irakasleak biltzar nagusian

ANA MARI ETA FRED

Olhain ikastolaren biltzar nagusia azilaren 24an iragan zen Gazteen Etxean. 1992 urtean ideki zen herriko ikastola 6 hurrekin, aurtengo ikasturtean 15 haur baidire. Ate ideki egun bat antolatzea proposatua izan zen, herritarrek hobeikiago ezagutu dezaten ikastola.

Ainhoa Zelaia irakasleak Seaska Federazioaren «Euskaraz biz» proiektua azaldu zuen, Ipar Euskal Herriko ikastoletan euskarari buruzko diagnostiko bat egiten ari baitire. Andereñoak tokiko euskararen erabileraren inportantzia azpimarratu zuen. Hori bultzatzeko bi proposamen egin zituen: lehena, haurrek ahal bezain bat euskaraz mintzatzea eskolatik kanpo (familiarekin, elkarte desberdinetan, dendetan...); bertzera, hilabetero saratar bat ekartzea ikastolara haurrei istorioak kontatzeko.

Bulegoaren aldetik, lehendakari den Bittori Etxeberri bere postua uzteko xedea azaldu zuen heldu den ikasturteko eta bertze burasobaten laguntza galdetu zuen hemendik goiti, aurten elkarlana egite-



Ikastolako buraso batzuekin Aniotzbehere jauna eta bere eskuinean Ainhoa Zelaia irakaslea.

ko. Muriel Txapartegik diruzaintza hartu du Jean Mixel Ondikolaren ordezkari eta idazkaritzan Arantxa Indaburuk segitzen du.

Besta garaia eta presoak gogoan

Abenduaren 31n, Urtats gaua kari, azkeneko urtetan bezala Sarako biztanleak elgarretaratze baterat gomitatzen diren arratsko 8etan Herriko plazan, euskal presoak Euskal Herrirat ekarriak izan daitezkeen galdetzeko. Besta garai huntan oroitzen behar da Teresa Telletxea eta Bixente Garzia saratarak beti preso atxikiak direla horien etxetik urrun. Bi herritar hauek laguntzeko herriko Biga sustengu komiteak hiru saski emanen di-

tu Plekan, Lastyrin eta Herriko Etxeko edantegian. Txartelak eros daitezke ostatu hauetan ere.

Lerro hauen bidez gure elkartasuna adierazten diegu Tere eta Bixente herritar presoek, baita preso guzietan ere.

Téléthon ekitaldia

Urte hondar guziz bezala, eritasun genetikoaren sendatzeko sosa bildu nahiz, Téléthon ekitaldia ospatu da abenduaren 8 eta 9an. Sarako elkarteek eta eskolek bat egin dute aurtengo edizioaren antolatzeko, egitarau aberatsa eskainiz. Ortzirale arratsaldean hiru eskoletako haurrek plazatik abiatu ibilaldi bat egin zuten, krakada goxo bat hartu aitzin. Biharamonean, egun berezia antolatua izan

da, jendeek Larrunerat treinez upatzeko parada ukan baidute arratsaldean, gauaz xirio pixtuekin oinez jausteko, ikuskizun ezin ederragoa eskainiz San Inazio lepoan beha zirenen-tzat. Antolatzaileek esker-tzen dituzte laguntza ekarri dutenak.

Mus txapelketa Herriko Etxeko edantegian

Urtarrilaren 5ean, arratsko 8ak eta erdietan, Frantziako 39. mus txapelketako kanporaketak hasiko dira Herriko Etxeko edantegian. Lau astez iraunen duen lehiaketa huntan parte hartzeko deitu arratsaldez ostatura. Aitzineko urtetan bezala, bikote bakoitzak 120 libera ordaindu beharko du.

Argi sare berria jarriko da Lardar inguruan

Lardar inguruan argiteri sare berritzeko proiektua 2000. urteko Herri Azpiegitura Planaren barnean sartu du Nafarroako Gobernuak Leku Administrazioak. Aurrekontua 7,52 milioi pezetakoa da eta Nafarroako Gobernuak 3,41 milioi pezetak jarriko ditu. Lardar inguruko tentsio altuko sarea, transformazio zentrua eta tentsio baxuko sarea egingen dira. Sare hauek lur azpian nahiz airean joanen dira.

Izarra errugbi taldea motel

Sarako Izarra errugbi taldeak ez ditu emaitza onak erdietsi azken aldian. Abenduaren 3an, saratarak Lit eta Mixe alderat izatu dira, eta 17 eta 12 galdu dute. Bigarren taldeak ere ez du hobe egin, handik galtzaile itzuli baita. Abenduaren 10eko partida ere ez da ona izan, basurdeek beren zelaian galdu baidute oraingoan, 17 eta 22 Sault-ren aurka. Kanpotiarren 2. taldea agertu ezdenez, garaipena erdietsi dute Sarako 2. taldeko jokalariek. Abenduaren 17ko neurketa jokatu ondoren, ederki merezitako atsedena hartzen ari dira jokalariek, 2. fasea urtarrilaren 7an hasiko baita.

BAZTANDARRA KOOPERATIBA
Baserritarren zerbitzurat
Tel: 948 453310 - Faxa: 948 453375
Ordoki Auzoa • ARIZKUN

Eskisaroi jatetxea
Jaime Urrutia, ☎ 948 580 013
ELIZONDO

ARMUA Jatetxea
Zugarramurdiko karretera 3. Km
☎ 948 599 131 - URDAZUBI

HERRIKO ETXEN EDANTEGIA
MUS TXAPELKETA

 **MODA**

Neguko moda desfilea arrakastatsua suertatu zen

Doneztebeko kiroldegia jendez gainezka ageri zen TTIPI-TTAPAK antolatutako ekitaldian

TTIPI-TTAPA

Ehundaka lagun bildu ziren Doneztebeko kiroldegian San Franzisko egunean, TTIPI-TTAPA FUNDAZIOAK, Doneztebeko Udalaren eta Nafarroako Rural Kutxaren laguntzaz antolatutako neguko moda desfilea ikusteko intentzioarekin. Sarrera libre zen eta jendeak ikusmin handia agertu zuen eskualdeko hemezortzi komertzioen generoa eta lana aztertu eta gozatzeko.

Zehazki, Berako Agara Kirolak, Arantzako Amaia ileapaindegia, Doneztebeko Belen loreak, Elizondoko Estibalitz makilajea, Doneztebeko Ibarrola haur jantziak, Elizondoko Ipingi jantziak, Doneztebeko J.J. Pikabea jantziak, Doneztebeko Juli oinetakoak, Bera eta Doneztebeko Kalash bitxidenda, Doneztebeko Mari Cruz lentzeria, Berako Martutzak jantziak, Elizondo eta Doneztebeko Mena eta Zaldua argazki dendak, Irungo Mirari premama denda, Doneztebeko Ostiz oinetakoak, Lesakako Ruth ileapaindegia, Doneztebeko Tximeleta jantziak eta Doneztebeko Txirrista haur jantziak izan ziren beraien eskaintza pasarela gainean erakutsi zuten komertzioak.

Desfilean gorputz-makilajea ere ikusgai izan zen eta horrek ere, noski, ikusmin berezia sortu zuen.



Ttikienek ere trebezi handia erakutsi zuten desfilatzera ko orduan.

Argazkia: Asier

SENPERE

Karrikako lanengatik orain arteko problemek segituko dute otsaila arte

Behi eroen aferarengatik segurtasun neurriak hartu dira jan gela publikoetan

FRANCK DOLOSOR

Azken aldian karrikatik pasatzeko arazo frango sortzen duten lanak otsailean bururatu-ko dira. Untsalaz, urtaririlaren 15ean bukatu behar zen den-dena baina azkenean denbora txarra izan baitugu beranta piskat hartu dute zahar berritze obra hauek.

ETB ikustearen alde

Abenduaren 3an, Herriko Etxearen aintzinean 50 presunek galdengin zuten ETB ikusia izan dadin herri osoan. Iaz, 200 familiek horren aldeko eskaria sinatu zuten baina geroztik afera ez da aintzinate, nahiz eta bilkura frango eginak izan diren. Herriko kontseiluak ere gaia aipatu du berriki, baina lerro hauek idazten ginituelarik ez ginakien zer ondorio atera zen hortik. Ondoko TTPI-TTAPAK dena aipatuko dautzue gai huntaz.

Ikasgela berriak San Josep eskolan

Abenduaren 17an, lan luzeen ondotik, San Josep eskolako ikasgela berriak inauguratu zituzten. Luzaz seroren etxea izan zena orain eskola girixtinoko ikasleek baliatuko dute.

Behi eroak

Behi eroen gaitza gero eta gehiago zabaltzen ari delakotz, Lapurdiko herri anitzetan egin den bezala, auzapezak deliberatu du kantinetan ez dela gehiago, memen-

tuan bederen, idiki haragirik zerbitzatu. Herriko Etxetik jakin ahal izan dugu haurren segurtasuna zaintzeko hartu dela erabakia.

Kultur ekitaldiak Oxtikenian

Abenduaren 23an, arratsaldeko 4etan, Oxtikenian, Ugutz txistekondalaria izanen da.

Abenduaren 27an, pista jokoak: Izenak eman 0559541285 telefonora deituz. Abiatzea 2etan Oxtikenian.

Abenduaren 30ean mus txapelketa arratsaldez Oxtikenian (gaztetxeen arteko taldeak antolatua).



Herriko baratze edo etxe-loratu ederrenen sariztatzea Herriko Etxean. S. de la Nivelle



50 urte sortu zirela eta 50 urte ezkondurik

Abenduaren 12an Arozena ostatuan elgarrekin afaldu zuten aurtun 50 urte betetzen dituztenek, goitiko argazkian ageri den bezala.

Zorionak, bertzalde, eskuinaldean ageri diren Otegi senar-emazteeri aurtun urrezko ezteiak ospatu dituztelakotz. Studio de la Nivelle



RESTAURANT MIGUEL

Ongi zaindutako sukaldaritza Menuak aukeran

MIGUEL JATETXEA
Ibardingo Lepoa
☎ 948 631209

ORDOKI LIKOREAK

Tel.: 948453410
Fax: 948453378
ARIZKUN

ERRETEGIA
Parrilan egindako haragi eta arrainak

EZKONTZAK

Jose Manuel Oiartzabal Goñi eta **Amaia Maisterrena Arraztoa**, Oiartzun eta Lekarozkoa, azaroaren 18an.

Severiano Migelarena Mutuberria eta **Maria Carmen Igoa Irigoien**, Saldias eta Zigakoa, abenduaren 2an.

Fernando Oiartzun Sagastibeltza eta **Jaione Aldaia Zabaleta**, Leitzakoak, azaroaren 27an.

Pedro Jose Fernandez Larrea eta **Ana Maria Urkizu Odriozola**, Leitza eta Elduaiengoak, abenduaren 1ean.

Iñigo Sanz Goia eta **Maite Criado del Puerto**, Berakoak, azaroaren 25ean.

Carlos Goikoetxea Ramos eta **Maria Lourdes Mitxelena Lizardi**, Berakoak, abenduaren 2an.

Luis Mari Azpiroz Lekuona eta **Itziar Iguzkiagirre Urtxegi**, Oiartzun eta Igantzikoa, abenduaren 7an.

JAIOTZAK

Uxuri Etxegia Etxebeste, Sunbillakoa, abenduaren 1ean.

Kévin Balaire, Sarakoa, azilaren 22an.

Iker Asiain Iriarte, Zizur Nagusikoa, abenduaren 5ean.

Eider Elizaintzin Irungarai, Gartzaingoa, azaroaren 12an.

Oscar Elortza Salaberri, Oronoz-Mugairikoa, azaroaren 14ean.

Asier Mariezkurrena Elizaintzin, Iruritakoa, azaroaren 19an.

Josu Etxandi Sanzberro, Arraiozkoa, azaroaren 17an.

Eider Biela Mena, Iruritakoa, azaroaren 20an.

Aritza Fernandez Crevillen, Zigakoa, azaroaren 18an.

Ander Ballarena Arotzena, Elizondokoa, azaroaren 26an.

Olaia Otxoteko Telletxea, Berakoa, azaroaren 24an.

Leticia Errandonea Otxoa de Zabalegi, Berakoa, azaroaren 18an.

Joseba Ugartemendia Eltzaurdia, Berakoa, abenduaren 2an.

Ethar García Curto, Berakoa, abenduaren 5ean.

HERIOTZAK

Andres Meoki Iriarte, Elbetekoa, abenduaren 7an, 74 urte.

Manuel Iglesias Tato, Elizondokoa, abenduaren 10ean, 73 urte.

Angela Indakotxea Ezkurra, Elgorriagakoa, abenduaren 9an, 96 urte.

Bernardino Tirapu Gogortza, Leitzakoa, abenduaren 1ean, 75 urte.

Maria Pikabea Sorondo, Arantzakoa, azaroaren 26an, 89 urte.

Casimira Etxaniz Zabala, Arantzakoa, abenduaren 6an, 79 urte.

Luis Telletxea Aizega, Doneztebekoa, azaroaren 8an, 57 urte.



Angela INDAKOTXEA EZKURRA

2000ko Abenduaren 9an hil zen, 96 urte zituela

Famili osoak, gure esker ona adierazi nahi genuke egun hauetan hartu ditugun dolumin eta elkartasun seinale guzietatik.

*Erraza izan zen zu maitatzea
Ezinezkoa ordea, zu ahaztea.*

*Beti gurekin izango zara
Muxu haundi bat, amatxi.*

Elgorriaga, 2000ko Abendua



Felipe NARBARTE ZUBILLAGA

1. urteurrena (99-XII-22)

*Abenduaren 24an, Olentzero egunean,
eguerdiko 12etan, urtemugako
meza ginen da Goizuetako Elizan.*

Bere bilobak Gorane, Olatz,
Onintza, Xabier eta Garazi.
Domiñazpi baserria.



Jon APEZETXEA TAPIA

4. urteurrena (XII-3)

*«Abenduaren 3an
gure lagun Jon
munduan galdua»*



Hire lagunak

A

AGINAGA, Mitxel

Narbarteko kirolariak laugarren urtez segidan irabazi du Nafarroako Mendi Duatloi txapelketa. Gaztelako Kanalaren Zirkuitoan eta Aragoiko Kopan bigarrena izan da eta Green Cup sari famatuan zortzigarren postua erdietsi du.

ARZALLUS, Unai

Leitzako Aurrera futbol taldeko jokalaria, bapatean sortutako eritasun baten ondorioz hil zen urtarilaren 12an, 22 urte zituela. Futbolearen ez ezik, dantza taldean ere aritzen zen, beraz hutsune nabarmena utzi zuen bere heriotzak Leitzako kirol eta kultur munduan.



Juanjo
ATXA

ATXA, Juanjo

Nafarroako Gobernuak Kirol Merituari emandako zilarrezko domina eskuratu du Juanjo Atxak, 25 urtez pilotaren alde egindako lana eskertuz. Txarutako ardura-dunarentzat urte ezin hobea izan da, Nafarroako eta Euskal Herriko Herriarte txapelketa eta bertze hainbat sari lortu baitituzte Baztan eta Malerrekako pilotariak.

AURRERA

Leitzako futbol taldeak Preferente mailara itzultzea lortu zuen, denboraldi bikain baten ondotik. Taldekideek Unai Arzallus zenari eskaini zioten igoera.

B

BALEZTENA, Josu

Hamazazpi urte besterik ez dituela, ASPE enpresarekin aurre-

kontratua sinatu du Eratsungo arrerariak. Horren arabera, heldu den urtean debutatu du profesionalen eta bi urteko kontratua izanen du.



Josu
BALEZTENA

BETI GAZTE

Sokatira taldea bikain aritu zen jogan den denboraldian. Nafarroan eta Euskal Herrian lau txapelatik hiru jantzi ondotik, Holandako Slagharen hirian jokaturako Munduko txapelketatik urrezko bi domina (klub arteko txapelketan, 560 eta 600 kilotan) eta zilar eta bronzeko bana (nazioarteko txapelketan, 560 eta 640 kilotan) ekarri zituzten. 2000. urteko Nafarroako txapelketan txapel guzien jabe egiteko intentzioarekin plazaratu dira.

BRU, Jon

Nafarroako txirrindulari afizionatu onenari emandako saria jaso du Banesto taldeko beratarrak. Gainera, Elite mailako Nafarroako txapeldun izan da eta Euskal Herriko txapelketan hirugarren. Euskaldun Sariaren ere hirugarrena izan da, zenbait hilabetez lehen postuan egon ondotik. Dena den, heldu den urtean Caja



Beti Gazteko sokatira taldea, Nafarroa, Euskal Herria eta Munduko txapeldun



Jon BRU

Ruralera itzuli beharko du, Banestok ez baitio profesionalerara pasatzeko aukerarik eman eta heldu den urtean afizionatu taldea kenduko duelako.

E

ERRANDONEA, Rafa

Garfe enpresarekin hiru urterako fitxa egin eta urte hasieran Sartagudan egin zuen debuta profesionalen Arantzako atzelariak.



Rafa
ERRANDONEA

ETXEBERRIA, Jose Javier

Doneztebeko erremontelariak XXI. Mendeko txapelketa irabazi zuen. Zeberio II.rekin batera, 40 eta 30 irabazi zien urtarilaren 8ko finala Patxi Iribarren eta Iñaki Lizaso herriarrei.

G

GURE TXOKOA

Gipuzkoako Emakumeen Ligan irabazle suertatu da Berako taldea. Kontxako hondartzan ari ziren gaztetxoak ligan azpitxapeldun izan ziren. Senior mailako mutilek azken jardunaldian eutsi zioten Erregionaleko lehen mailari, baina aurten bikain hasi dira. Hau idazterakoan lehenbizikoak dira eta Matzadan derbia irabazi zioten Beti Gazteri azaroaren 12an.

I

IRURITA Txirrindulari taldea

Nafarroako Gobernuak Kirol Merituari emandako zilarrezko dominak eskuratu dituzte Club Ciclista Irurita taldeko Tiburcio Almenar Salaberri, Joaquin Garate Urrutia eta Cristobal Urrutia Eugik, 25 urtez txirrindularitzaren alde egindako lana eskertuz.



2000 kirolari izenak

00ko rol ndegia

K

KOKKOR BILTZEA

Maika Ariztegi iturendarra Euskal Herriko kokkor biltze txapelkun suertatu zen urriaren 1ean Aizarnazabalen egindako finalean. Mutilen artean, Fernando Etxegarai beratarra azpitxapelkun izan zen, irabazleak baino bi segundu eskas gehiagorekin. Biak Nafarroako txapelkunak dira.

L

LAXOA

Doneztebeko taldeak irabazi zuen abuztuaren 6an Bear-Zana pilota plazan jokaturako Baztan-Errekako XXI. laxoa txapelketa. Finalean 9-8 irabazi zion Arraiozi. Gazte mailan Irurita nagusitu da bigarren urtez.

LIZASO, Iñaki

Bingo-Londres erremonteko buruz buru txapelketa irabazi zuen



Iñaki
LIZASO

doneztebarrak, finalean Koteto Ezkurra herritarri 35-25 irabazi ondotik.

LOIARTE, Jose Antonio

Irailaren 30ean Igantzin jokatu zen Nafarroako bigarren mailako aizkolari txapelketan aisa nagusitu zen zubietarra. 38 urterekin, lehen mailako bizpahirurekin borrokatzeko prest ikusten du bere burua.

LUJANBIO, Amaia

Scania-Pamplona Atletico taldeko korrikalari goizuetarrak 5.000 metroan Nafarroako marka berria ezarri du, junior mailan: 17 minutu, 28 segundu eta 19 zentesima, aurreko marka baino ia minutu terdi hobea. Emakumeen maila guzietan Nafarroan inoiz egin den bigarren marka onena da goizuetarrarena.

M



Iñaki
MIHURA

MIHURA, Iñaki

Nafarroako eta Euskal Herriko gazte mailako kros txapelketak irabazi zituen urte hasieran korrikalari arraiotarrak. Taldeka ere, Nafarroako txapela eman zion Burlatako Hiru Herri taldeari. Bertze hainbat lasterketetan bikain ibili da Mihura eta etorkizun handiko atleta dela erakutsi du.

MINDEGIA, Mikel

Euskal Herriko txapelketan, gerriko minaren ondorioz, ez zen gustora aritu eta laugarren izan zen aizkolari zubietarra. Nafarroako txapelketan Nazabal zen faborito, baina Mindegiak ongi eutsi egin zion bere txapelari, Doneztebeko ferietan egindako finalean. 51 urte izateko ez dago batere gaizki.



Paxaka txapelketa irabazi zuten Arraztoa, Etxeberria eta Mariñelarena doneztebarrak, finalista izan ziren Oizko Fagoaga eta Ariztegi anaiekin.

P

PAXAKA

Laxoa elkarteak lehen aldiz antolatutako Paxaka txapelketa Doneztebeko Arraztoa, Etxeberria eta Mariñelarenak irabazi zuten. Zortzi hirukotek eman zuten ize-na. Hasi berria den bigarren txapelketan, berriz, hamabortz hirukote izanen dira, kirol zaharren berpiztearen seinale.

R

RETEGI, Jexux-Julian

Uztailaren 29an Isaban egin zuen debuta profesionaletan Asegarce enpresarekin 23 urteko aurrelari eratsundarrak. Urtebeteko kontratua egin zuen Retegi VI.k, Julianen lehengusu propioak. Julian bera ere protagonista izan da aurretik. Bi urteren ondotik kantxetara itzultzeaz gain, itxura bikaina eman baitu lau terdiko txapelketan.



Jexux
RETEGI

T



Xabier
TELLETXEA

TELLETXEA, Xabier

Maiatzaren Beran egin zen Nafarroako Mendi-bizikleta jauntsiera txapelketan elite mailako txapelkun suertatu zen 22 urteko txirrindulari igantziarra. Bertze kategorietan ere eskualdeko txapelkunak izan ziren: Nahuel Gomez (sub-23), Eneko Ado (junior) eta Hegoi Ado (kadete) beratarrak, hain zuzen.

V

VILA, Patxi

Urte berexia izan da Berako txirrindulariarentzat. Neguko Mendi Triatloian, Espainiako azpitxapelkun eta Europako seigarren izan zen. Bizikletan, afizionatu eta Europako seigarren izan zen. Bizikletan, afizionatu eta Europako seigarren izan zen. Bizikletan, afizionatu eta Europako seigarren izan zen. Bizikletan, afizionatu eta Europako seigarren izan zen. Bizikletan, afizionatu eta Europako seigarren izan zen.

AGENDA EGUNEZ EGUN

KONTZERTUAK

IGANTZI

► **Abenduaren 23an** urteroko kontzertua eskainiko du Igantziko Abesbatzak elizan, 8etako Meza ondotik.

LEITZA

► **Abenduaren 22an** «Buitraker» taldearen kontzertua, gaueko 12etan Torrea tabernan. Sarrera: 500 pta.

ANTZERKIAK

LEITZA

► **Abenduaren 23an** Txako Produzioak taldearen «Bere emaztea kapela batekin nahasi zuen gizona» antzezlan zineman, arratseko 8etan.

LEHIAKETAK

LEITZA

► **Ilbeltzaren 15ean** bukatuko da Mendibil Mendi taldeak antolatutako mendiarri eta naturari buruzko argazki lehiaketara lanak aurkezteko epea. Xehetasunak 19. orrian.

LESAKA

► **Abenduaren 24an** Olentzero eta jaiotza lehiaketa, eguerdian.

ERAKUSKETA

ELIZONDO

► **Abenduaren 23tik ilbeltzaren 21 artio** Xabier Santxotena eskultorearen «Proyecto experimental» erakusketatik ikusgai egonen da Arizkunenea Kultur Etxean. Zabaltzea, larunbatean, arratseko 7etan. Lanegunetan, arratseko 6,30etatik 9etara.

TELEBISTAKO TXOKOA



Eguberriak ttipi-ttapa telebistan

Negua, eta honekin batera eguberriak ailegatzen diren egun berexi hoiek gainean izanik, TTIPI-TTAPA TELEBISTAN ere programazio berexiari idekiko diogu tartea. Herriz herri eta tokiz toki hainbat eta hainbat ospakizun egiten diren momentu hoietan egoten saiatuko gara gure HERRIZ HERRI saioan. Oraingoan gure berriemaile berri-tsuek auzoz auzo eta xokoz xoko gidatuko gaituzte herri bakoitzeko ohitura eta ospakizunak ezagutzera emateko. Bertzalde, hilaren 26an, asteartea, euskal herrian eta berexiki hemen bertan hain maitatua den OLENTZERORI eskeiniko diogu saio berexia: Herri guzietako olentzeroak, lehiaketak, karrikabueltak.... TTIPI TTAPA TELEBISTAK ere bere omenalditxo egingen dio eguberrietako pertsonaia maitagarri honi.

Eta noski, eguberri egunaren ondotik, urte zahar arratsa hurbiltzen hasten da, eta denok urte zaharra nola bukatu eta urte berria nola agurtuko dugun pentsatzen dugun bitartean, TTIPI-TTAPA TELEBISTAN hilaren 29an, ortzirala, bertze saio berezi bat eskeiniko dizuegu.

Eta hau ez da dena, urteko berri garrantzitsuenen errepasoa, haurren opariak, erregeak, diostesalveak, musika eta gainerakoak aurkituko baitutuzue, urrun joan gabe, hemen bertan, TTIPI-TTAPA TELEBISTAN.

BASERRIA



❖ ZERRIKIA ❖

- **Zerrikumea** (20 kilokoa): 7.300 pta.
- **Zerri gizona** (95-100): 187 pta./kiloa.
- **Zerramak**: 120-125 pta./kiloa, bizirik.




❖ BEHIKIA ❖

- **Aretze gizenak:**
- **Idixkoak:** Pta./kg. Kanal
Extra555-570
1.koa545-555
2.koa495-505
- **Urruxak:** Pta./kg. Kanal
Extra600-610
1.koa575-595
2.koa525-545
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruxentzako.
- **Aretze tikiak**
(15 egun ingurukoak):
Nabarrak: urruxak 25.000-29.000 eta idixkoak 31.000-36.000 Pta.
Mestizoak: urruxak 42.000-48.000 eta idixkoak 49.000-59.000 Pta.
Behi zaharrak:
Behi nabar gizona: 350 Pta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 410 Pta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIA: EHNE-NAFARROA

Liburuak



«Zazpi kolore»

Jon ARRETXE
ELKARLANEAN

Munduan barna egin dituen bidaia zenbaezinen pasarteak bildu ditu Jon Arretxe basauriarrak bere azken liburuan. Mundua arras koloretsua dela inork baino hobeki daki Arretxek, eta koloreka sailkatu ditu ipuinak, jakina baita koloreak sentimendu batzuekin lotzen ditugula. Horrela, beltza heriotzarekin elkartu ohi dugu normalean, eta heriotz istorio latz batekin hasten du liburua, bere aitaren heriotzari

buruzkoa. Ondotik, kolore grisa oroitarazten dizkieten zenbait kontakizun jarri ditu, herrialde urrunetan ibili delarik aurkitu dituen pertsonen bizimodu tristeak isladatzen dutenak. Kolore gorria, horia, berdea, urdina eta xuria heldu dira gero, bakoitza hiruzpalau istorio labur baina esanguratsuz hornitua. Hezur-haragizko hainbat pertsona alai, triste, sakon eta arin aurkituko duzu liburu honetan.

JAKIN BEHARREKOAK

Ez hartu alferreko buruhausterik

Zenbat aldiz sentitzen gara kezkatu horren arrazoia jakin gabe? Gaizki sentitzen gara baina ez dugu horretarako arrazoi logikorik. Gainera, zenbat eta buelta gehiago eman kezka horiei, gero eta soluzio guttiago izanen dugu, ideia batean trabaturik gelditzen ahal garelako.

Kontuan hartu behar da arrazoi garbirik gabe kezkatu dagoen pertsona baten atzean autoestima ttikiko eta bere buruarekin segurtasun gutti duen norbait dagoela. Bizitzan agertzen diren gertaerei aurre egiteko bere gaitasunean sinesten ez duen norbait. Beraz, ondoko neurri hauek hartzea gomendatuko nuke:

- Egunaren minutu batzuk soilik erabili kezkak hausnartzeko, adibidez, 5 minutu egunero. Tarte horretatik kanpo burura heldu zaizkizun kezkak baztertu eta gorde 5 minutu hoiek ailegatu arte. Pixkan-pixkan momentu hoiek ttikitzen joan zerora ailegatu arte.



Batzutan arrazoirik gabeko kezkak erabiltzen ditugu burutan.

Zure buruan konfidantza izan eta etorkizunari aurre egiteko gai zarela sinetsi. Ez utzi gertaerek gida zaitzaten, zuk zeuk eraiki itzazu.

- Pentsatu etengabe etorkizunarengatik kezkatu bazu ezin izanen duzula oraina bizitu.

- Zure buruan konfidantza izan eta etorkizunari aurre egiteko gai zarela sinetsi. Ez utzi gertaerek gida zaitzaten, zuk zeuk eraiki itzazu.

- Zure arazoak ez dira bu-

ruan bueltaka ibiliz moldatuko, beraz, aurre egin behar diezu.

- Idatzi orri batean kezkatzen zaituen guzia. Honek lagunduko dizu arazoak "kanpotik" ikusten eta objektibitatez aurre egiten ahalko diezu. Irtenbideak aurkitzea ere errazagoa egingen zaizu.

- Kezka bat duzunean, irtenbiderik ote duen pentsa ezazu. Baldin badu, jarri martxan lehenbailehen, eta ez badu, zergatik kezkatu?

RAKEL AMIGO

BORTZIRIETAKO GIZARTE ZERBITZUA

AGENDA EGUNEZ EGUN

TXISTEAK

SENPERE

► **Abenduaren 23an**
Arratsaldeko 4etan, Ugutz txiste kondalaria Oxtikenian.

JOKOAK

SENPERE

► **Abenduaren 27an**
Pista jokoa. Abiatzea 2etan Oxtikenian. Izenak eman (0033) 559 54 12 85an.

► **Abenduaren 30ean**
Mus Txapelketa arratsaldeko Oxtikenian. Gaztetxearen aldeko taldeak antolatua.

TXAPELKETA

BORTZIRIAK

► Bortziritako taldeko 3. bertso lehiaketa. Lehen saioa, urtarrilaren 5ean, arratsaldeko 7etan Lesakako Berrin. Bigarrena Kattun, urtarrilaren 6an eta hirugarrena Berako Gure Txokoa urtarrilaren 12an. Finala Lesakako Arranon, urtarrilaren 20an.

ZINEA

LEITZA

► **Abenduaren 27an**
"El profesor chiflado II". Arratsaldeko 5etan

► **Abenduaren 29an**
"Héroes fuera de órbita". Arratsaldeko 5etan.

GUARDIAKO BOTIKAK

112 Tfpora. deitu behar da

► **Abenduaren 18tik 24ra** Lesaka, Doneztebe, Elizondo (Iturralde), Leitza eta Goizqueta.

► **Abenduaren 25etik 31ra** Bera, Sunbilla, Irurita eta Goizqueta.

DISKAK



«Ezarian»

LISABÖ

ESAN OZENKI

Hondarribitar hauek ateratzen duten lehen diskoa da Ezarian, nahiz eta lehendik beren jerra musikalei buruz dena erraten zuen maketa txukuna autoproduzitu eta banatu zuten. Disko honetako abestiak ere beraiek grabatu eta nahastu dituzte oso-osorik, Esan Ozenki disketxea banaketaz soilik arduratu da. Entzuteko gogorra da Lisabören musika; garratza, melodia

eskasekoa, oinazearen eraginez ohiz-ohiz eraikia. Testuak ere ilunak dira gehienez, laburak baina adierazkorak. Musika esperimentalean murgildu dira Lisabökoak zenbait kantutan. Aipagarria da orain bi bateriarekin jotzen dutela zuzenean, eta diskoa ere birekin grabatu dutela. Jabier Muguruza irundarrak kolaboratu du abesti batean, akordeoia joz eta abestuz.

MERKATU TTIKIA

Sail honetan iragarkia jartzeko 1.000 pezeta ordaindu behar da. **ttipi-ttapa** telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin). 1.000 pezetak Rural Kutxako 3008 0080 53 0200015293 kontuan sartu eta justifikantea **ttipi-ttapara** igorri faxez edo postaz.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK / LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK / ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi

zein erraza den zure anuntzioa hemen jartzea...

Hegoaldetik deitzeko
Iparraldetik 00-34-

948631188



...eta gainera, zure berri zonako etxe guzietan izanen dute!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. **ttipi-ttapa** ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak

- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak

- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

- 801. Agurrak

ETXEBIZITZAK

101 SALDU

LESAKA. Antoiu karrikan 85 m²ko pisua salgai. ☎ 948 637 821 (eguerdian eta 20etatik aitzin).

LEITZA. Patxi Arrazola karrikan pisua salgai, kale-fakzioarekin. Sukaldea, bainua eta jangela montatua. Lanparak etxe guzian. ☎ 948 510 534.

IGANTZI. Plsua, garajea eta sotanoa salgai. ☎ 948 637 845 (eguerdiko 1etatik 3etara).

ETXEBIZITZAK

102 EROSI

ADOS

- Eskaera handia dagoenez, bordak, baserriak, lur-eremuak, bajeak etab. erosi nahi dira.

☎ 948 451 841
607 978 656

GARAJEAK/LOKALAK

109 ERRENTAN EMAN

BERA. San Esteban karrikan (Telefonikako etxeak) garajea errentan emateko, kotxearentzat egokia. ☎ 948 631 033.

SARA. 800 m²ko gordeleku errentan emateko. Nahi diren m²ak alokatzen ahal dira, 400 pta/16 lib. m²a. ☎ 00 33 559 54 28 06.

LURRAK/ORUBEAK

113 EROSI

BERA, SARA edo ZUGARRAMURDI. Lur-eremu eraikigarria erosi nahi nuke. ☎ 655 709 553.

ZERBITZUAK

205 ZURGINAK

ARANTZA ZYRGINDEGIÀ
Jose Miguel Erandouea
Klase guztietako zurgin lanak
Ositia auzoa ☎ 948-634068 • ARANTZA

ZERBITZUAK

207 GARRAIOAK

Garraioak eta banaketak egiten dira, enpresa zein

partikularretara. Eguneroko 24 orduetan. ☎ 609 477 277.

LANA

301 ESKAINTZAK

Web orri eta multimediara-ko **disenatzaile grafiko** digitala behar da. ☎ 619 829 289 (Bitarte).

Mantenimendu, programazio eta erabiltzaileen laguntzarako **informatikaria** behar da. ☎ 619 829 289 (Bitarte).

Etxalarko jatetxe batean **zerbitzaria** behar da asteburuetan lan egiteko. ☎ 656 703 502.

Igeltsero gaztea behar dut Ultzama aldean lan egiteko. Soldata ona. ☎ 948 305 369 (eguerdi eta gauzez).

BAZTAN. Taxi plaza salgai. ☎ 948 453 290 (arratsetan).

Esperientziadun **sukaldaria** behar da Berako jate-txe batean lan egiteko. ☎ 666 079 141.

MOTORRA

501 SALEROSKETAK

Nissan Patrol Top-Line salgai

Turboa, Ilantak eta defentsa.
☎ 670 25 22 02

Land-Rover luzea behar dut. Egoeraren arabera negoziatuko da prezioa. Helburu on baterako da. Eskertuko da. ☎ 948 610631.

Renault Clio 1.2 salgai. NA-AU. ☎ 617 567 047.

Citroen ZX 1.9 diesela salgai. Avantage, automatikoa. 1992. urtekoa. ☎ 948 580 733.

Opel Corsaren **Ilantak** salgai, 14 hatzbetekoak. ☎ 948 450 571.

Land Rover laburra salgai. Egoera onean. ☎ 656 761 621.

Gas-gas TXT 321 motoa

salgai. 1999koa. Egoera ona. ☎ (0033) 559542732.

Okasiozko **trialeko moto** marka guziak salgai. ☎ 948 580 898.

MOTORRA

502 TAILERRAK

MENDAUR MOTOR

☎ 948 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko kotxeak:
Astra GSI 2000, C-15 G, Ibiza D, Super 5, Ford Orion egoera onean, Patrol 6 zilindro.
SUZUKIAK ETA VITARAK AUKERAN

BOAN TAILERRA
CITROEN Banatzailea

AUTO BERRIEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA
☎ 948 63 06 23 • BERA

GANIX Tailerrak
Iturlandeta, 9 • ☎ 948 630669 • BERA
IBILGAILUEN MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATEA
FIAT Zerbitzua

egin zaitez harpidedun

URTE OSOKO TARIFA (BEZ barne):
Hego Euzkadi Herria 47.500 • Ipur Euzkadi Herria 39.000 • Espainia 47.500 • Europa 39.000 • Amerika-Afrika 145.000

Izen-abizenak: _____ N.A.N: _____ Titulua: _____
Helbidea: _____ Posta Kodea: _____ Herria: _____ Herrialdea: _____
Ordainketa mota: Bankus Talon Transferentzia Giro postala
(Banku lanak ordaintzekoak betetzeko) Banku edo aurrezki kutxa.
Emittate: [] Sukurtzala: [] K.D. [] Kontu pertsonala: []
Titularrak: _____ Titulua: _____ Helbidea: _____

Harpidetzatzailearen izena eta bidali helbide honetara: Baigorri Argitaletxe, S.A. • Portueta, 23 - 2.A • 20018 Donostia (Gipuzkoa)

ANIMALIAK

602 SALEROSKETAK

Oilagor ehiziko **zakurkumeak** salgai. Aita-ama ehizturi onak. ☎ 606 094 024.

Setter zakurkumeak salgai, lau hilabetekoak. Bi ar eta emea. ☎ 948 610 625.

Hiru urteko **zaldia** salgai. ☎ 948 450 159.

Ardiak salgai. ☎ 948 635 019 edo 639 670 231.

DENETARIK

701 GALDU-AURKITUAK

Monederoa galdu da ltu-
renen, abenduaren 10ean
Imuntzo eta Belokiren kont-
zertuan. ☎ 617 340 768.

Faktura-liburua galdu da,
ustez Lesakan. ☎ 948 630
781 edo 658 737 064.

DENETARIK

702 SALEROSKETAK

Egurrezko **sukalde kale-
faktorea** salgai. Arras ego-
era onean. ☎ 609 744 757.

Aretxe **parrilak** salgai. ☎
948 592 092.

Hewlett Packard **ordena-
gailua** salgai. 200 Mbyteko
disco gogorra eta 12 Mbyte-
ko RAM memoria. Ordena-

gailuarentzat moblea ere
badu. ☎ 948 630 948 edo
948 630 095.

Fagor CBG-150 termo **ur-
berogailua** salgai. ☎ 948
630 948 edo 948 630 095.

Gimnasia bankua, ohati-
la eta estufa japoniarra sal-
gai. ☎ 626 088 309 (gauetz).

Gasoila erretzeko **kalde-
ra** salgai. Egoera onean.
☎ 948 630 362.

Haritz amerikano plantak
salgai. ☎ 948 450 771.

Sony markako **bideo-ka-
mera** berri-berria salgai.
Maleta eta guzi. ☎ 948 630
766 (Jose Mari).

1,5 x 2 metroko **mostra-
dore** berria salgai. Kajoi
eta apalekin. 175.000 pta.
☎ 948 510 023 (Mamen).

Kutxa erregistratzailea
salgai, ia berria. 50.000. ☎
948510023 (Mamen).

Hergom **sukalde-kale-
faktorea** salgai. Egoera
onean. ☎ 948 450 750.

DENETARIK

703 BERTZELAKOAK

Caritas: Butano estufak
behar ditugu. Norbaitek
baldin badu baten bat opa-
ritzeko, eskertuko genuke.
☎ 948 630 086.

LODITASUNA
EDAN ETA ARINDU!
Zure pisua kontrolatua
gustoko janak baztertu gabe
☎ 948 13 11 36

HARREMANAK

801 AGURRAK

Zorionak **Elgorriagako** Nu-
ria San Migueleri, Donama-
riako familiaren partetik, be-
reziki Leireren partetik.

Agur bero bat ttipi-ttapa-
ko langile eta irakurle guz-
tiori. Garazi eta Joxe Luis
Lisboatik.

Olatz; segi azkar. Gogor
egin eta jo pilota! Sarako
lagunak. Goraintzi beroak.

Zorionak **Goizuetako** Ibai-
eri: abenduaren 20an 6 ur-
te eginen dituelako. Aupa
pilotari! Gogor, gogor en-
trenatu hadi irabazteko
Olaizolari. Atta, ama eta Xa-
bierren partetik.

Mutil gazte batek harre-
manak izan nahi ditu 18-28
urteko mutikoeekin (idatzi
lruñeko 1174 posta kutxa-
tilara).

2001eko telefono gida prestatzen ari gara

Zure datuak
zuzentzeko edo
publizitatea
kontratatzeko,
deitu **948 63 11 88**
telefonora

KULTURKARI

Inprenta lanak egiten ditugu

- Kartelak
- Boletokak
- Faktura taloiak
- Bisita txartelak
- Aldizkariak
- ...

Behar duzuna momentu
batean egiten dizugu;
zure gustora diseinatu,
inprenta desberdinekin
preziorik hoberena
negoziatu eta listo!
Deitu lasai, eskatu
aurrekontua eta ikusiko
duzu!

☎ **948 63 11 88**

ARANTZako UDALA
OBREN ENKANTEA

Arantzako Udalak, 2000ko abenduaren 1ean egindako bi-
lera arruntean, «Arantzako kanposantua handitzeko obra»
esleitzea erabaki zuen.

Prozedura: irekia
Adjudikatze modua: enkantea
Kontratuaren xedea: Arantzako kanposantuaren haundi-
tzeko obra.

Aurrekontua: 18.593.943 pta, BEZ barne.
Behin-betiko bermea: adjudikazio prezioaren % 4.
Proposamenak aurkezteko epea: iragarki hau Nafarroako
Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aitzina, ho-
geita seigarren egun naturalera arte.

Proposamen ekonomikoak irekitzeko eguna: proposa-
menak aurkezteko eguna bukatu eta biharamuneko arra-
tsaldeko 19.00etan.

Prozedura honi dagokion dokumentazioa Arantzako Herriko
Etxean interesatuen eskura dago.

Arantzán, 2000ko abenduaren 12an
Alkatea,
Jose Ramon Amoros Oskoz



URTEBETETZEAK

Argazkiak berreskuratuzko, bidali sobrea zure helbidearekin.

OHARRA:
Argazki bakoitzarekin batera 35 Ptako 15 seilo igorri behar duzue.
Gainerakoan ez dira TTPI-TTAPA TELEBISTAN eta aldizkarian agertuko.
Argazkia itzultzeko sobra bat eta helbidea ere bidali.



Igor Lekuona Otxandorena lezotarrak 18 urte beteko ditu abenduaren 18an. Zorionak familiaren eta lagunarten partetik.



Iñigo donamaritarrak 8 urte beteko ditu. Zorionak bere familiaren partetik eta bereziki aita, ama eta bere arreba Izaskunen partetik.



Ane Gurrutxaga Errandonea lesakarrak 4 urte beteko ditu abenduaren 10ean. Auniz urtez familiaren partetik.



Jon Olaizola Otxoteko lesakarrak 4 urte beteko ditu abenduaren 8an. Zorionak familiaren partetik.



Ane Arburua Sagastibeltzak bi urte beteko ditu abenduaren 12an. Auniz urtez eta muxu handi bat etxeko guzien partetik.



Ainhoa Berasategi Artieda 3 urte beteko ditu abenduaren 27an. Zorionak familiaren partetik.



Jose Mari Etxabe Sanz beratarrak 9 urte bete ditu abenduaren 7an. Zorionak aita, jone eta jaioneren partetik.



Titino Etxabe Ladera zugarramurdiarrak 37 urte bete ditu abenduaren 3an. Zorionak Jose Mari, Jaione eta Begoñaren partetik.



Mayte Sanz Ganboa beratarrak 47 urte bete ditu abenduaren 4an. Zorionak Jone, Jaione eta Jose Mariaren partetik.



Elko, Nevada Michele Igoak abenduaren 26an 6 urte beteko ditu. Zorionak Lesakako bere familiaren partetik.



José Enrique eta Ioritz Arburua beratarrak urtarriaren 5ean 34 urte eta 24an urtea eginen dute. Zorionak familiaren partetik eta muxu handi bana. Zorionak!




Ibai Iribarren Larretxea urrotzarrak 5 urte beteko ditu abenduaren 23an. Zorionak gure potxoloari, familiaren partetik.



Arritxu Mujika lesakarrak 6 urte beteko ditu abenduaren 13an. Zorionak guzior partetik.



Zorionak Txipi! Lezo.



Imanol Espinosa Martinez beratarrak 2 urte beteko ditu abenduaren 28an. Zorionak Julen, Amaia, aita eta amaren partetik.



Ainhoa Altzuguiren Mitxelena beratarrak 4 urte bete ditu abenduaren 19an. Zorionak atxa, ama eta ahizpa Amaia-aren partetik.



Maialen Mikelarena Bengotxea beratarrak 7 urte beteko ditu abenduaren 31n. Zorionak Iratxe, aita eta ama.



Maria Sanjurjo Gil lesakarrak urtea bete du abenduaren 17an. Zorionak eta muxu handi bat familia osoaren partetik.



Manex Zapiain Abuin beratarrak abenduaren 22an 3 urte beteko ditu. Zorionak bitxo! Familiaren partetik.



Itxasne Otxoteko Abuin lesakarrak abenduaren 14an 10 urte bete ditu. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik.



Mikel Arotzena Mitxeko almandozarrak abenduaren 15ean urtea bete du. Zorionak aita, ama eta familiaren partetik.



Javier Saldias Murillo legasarrak 4 urte bete ditu abenduaren 7an. Zorionak eta muxuak aita, ama eta Juliaren partetik.



Nati Baleztena abenduaren 16an urteak bete ditu. Zorionak eta muxu handi bat Jon eta Jose Mariaren partetik.



Xabier Gazte-lu Iturregi k 3 urte bete ditu abenduaren 14an. Zorionak eta muxu handi bat bere aita, ama eta familiaren partetik.



Iratxe Madariaga aranztarrak 14 urte bete ditu abenduaren 11n. Zorionak Naiara eta Leirenen partetik. Ea besta auniz egiten dugun!!!



Lidia Indakoetxea beratarrak 7 urte beteko ditu urtarriaren 4an. Zorionak Tania, aita eta amaren partetik.



Mikel eta Lorenzo zugarramurdiarrek abenduaren 12an 3 urte beteko dituzte. Zorionak aita eta amaren partetik.



Alaitz Danboriena etxalartarrak 8 urte beteko ditu abenduaren 19an. Zorionak atxa, ama eta Aitorren partetik.



Belén Carrillo beratarrak urteak beteko ditu abenduaren 27an. Zorionak guzien partetik eta muxu bat Xabier eta Ezti-xuren partetik.



Patxi Iurria askaindarrak abenduaren 14an urteak bete ditu. Zorionak azkaindarra! Eztibxu, Xabier eta familia guziaren partetik.



Zigako Kontxi k 4 urte bete ditu abenduaren 17an. Zigako eskolako guzien partetik, auniz urtez.



Raquel Fagoaga Etxarte lesakarrak abenduaren 13an 12 urte bete ditu. Zorionak familiaren partetik.



Patrizia Otxandorena gartzaindarrak 16 urte bete ditu abenduaren 2an. Zorionak! Joxe, Mayi, Nekane, Idoia, Arantxa, Miren eta Ana Belen.



Unai Loiarte irundarrak 3 urte bete ditu abenduaren 18an. Zorionak eta muxu handi bat Leitzako familiaren partetik.



Amaia Garazo beratarrak abenduaren 24an 15 urte beteko ditu. Zorionak.



Yune Intziarte lesakarrak urtarriaren 15ean 15 urte beteko ditu. Zorionak.



Maialen Arrieta Sarratea elgorriagarrik abenduaren 26an 4 urte beteko ditu. Zorionak Asier, aita eta amaren partetik.



Imanol de Rueda Goñi le-sakarrak 4 urte beteko ditu urtarriaren 4an. Zorionak gure txapel-dunari. Andrea, atxa eta ama.



Jon Iparragirre beratarrak abenduaren 28an urtea beteko du. Zorionak familia guziaren partetik.



Maria Garcia Retegi beratarrak 19 urte beteko ditu abenduaren 28an. Zorionak familiaren partetik.



Beñat Iurria Cuartero beratarrak 11 urte beteko ditu abenduaren 23an. Jon, atxa, ama eta amatxien partetik zorionak.

Norbait zoriontzeko, bidali bere argazkia, testua eta 35 pezetako 15 seilo TTPI-TTAPako helbidera:

TTPI-TTAPA ALDIZKARIA
HERRIKO ETXEKO PLAZA, 1
31780 BERA



Almaco Baztan

ETXEGINTZA ETA
SANEAMENDU
MATERIALAK

© 948 580 104 / 948 580 366
ELIZONDO

↓ Zeramikak



↓ Sukaldeak



↓ Velux-ak



↓ Erremintak



BELOTA

MUE LES
Tlltx

Rosa Seminario z/g

☎ 948 450 258

DONEZTEBE



BORDATXO



EGUNE , S E EKIN TE , K NTSUMIZI T N
 ET LET T IY M H M T TEN Z ZKET K .

23

L run t

EL E

z r n

3

L run t

ISK TEK

Urt Z h r G u **31**

u r t

r r

n

5

rtz r l

ASSIA

ISK TEK

L run t

YAMAHA MOTO BATEN ZOZKETA

BORDATXO

u

r r

t

m

r t x



M H h uzur tz t z t n h l

S r r r r kn t r

sk tu l t t ...

SUE TE UNITZ

ZEN TET LET GEHI G SUE TE GEHI G

TX N EGINEN U T IL EN n E EGE EGUNE N